

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a / 745. zenbakia

GIZARTEA / Sahararako elkartasun karabana

Hemen inguruan bost tona produktu batu dituzte

UBANE MADERA

Datorren astelehenean, hilak 30, bidaliko dituzte Leintz ibarrean eta Oñatin batutako produktuak Donostiara. Gero, otsailaren 11n bidaliko dute EAEn batutako guztia Sahararako kanpalekuek. Atuna, azukrea eta konpresak batu dituzte; gutzira, bost tona produktu.

Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan eta Oñatin batu dituzte bost tona produktu Sahararako kanpalekuek bidaltzeko. Dagoeneko kutxetan batuta dago guztia, astelehenean Donostiara bidaltzeko gertu. NUBI elkarteak bideratzen du elkartasun karabana hori. Elkarteak kide Agurne Juldainek elikagai bilketaren balorazio gazia egin du: "Geroago eta gutxiago jasotzen da eta pena da ze beharra geroago eta handiago da eta hango egoera geroago eta gogorragoa da". Zera ere gogorazti digu: "Aurten, gainera, 30 urte beteko dira hango liskar hura hasi zenetik eta egoera kritikoa da".

Agurne Juldainek kontatu digu 200.000 lagun inguru bizi direla Tindoufeko kanpalekuek errefuxiatuta.

500 EUROKO EKARPENA

Abenduaren 16tik abenduaren 26ra bitartean abiarazi zuten produktuak batzeko kanpaina. Inguruko eskola guztietan egin zuten eskaera; horrez gainera, saltoki handietan ere ipini zituzten kutxak, jakiak batzeko. Hain zuzen ere, BMn anekdota polit bat



Arrasaten gorde dituzte hemen batutako produktuak; argazkian, Agurne Juldain.

gertatu zitzaizela kontatu digu Agurne Juldainek: "Gizon batek 500 euro eman zizkigun eskura; eta hori ez da egunero gertatzen eta horregatik esker bereziak eman nahi dizkiogu". Hala, jakinarazi digu hori hori erabiliko dutela kamioiak erosteko, hau da, batutako produktuak Sahararako kanpalekuek bidaltzeko kamioiak erosteko.

DIRU GEHIAGO BEHAR

Horren harira, kamioi horiek erosteko kontu korronteak zabal-

du dituzte, herritarren ekarpenak jasotzeko. Laguntza eman nahi duenak otsailaren 11ra arteko astia du horretarako. Honako hauek kontu korronte hauxe zabaldu dute: 3035 008 0 94 08 000 54 177 (Euskadiko Kutxa).

Halaber, Agurne Juldainek gaineratu digu kamioiak erosi eta gero batutako dirutik zerbait sobratzen bada, bestelako beharrei aurre egiteko gastatuko dutela: "Adibidez, iaz apurtxo bat sobratu zen eta han bertan esnea erosteko erabili genuen".

Epaiaren zain dago Igor Letona arrasatearra

NEREA ZUBIETE

Igor Letona preso epaitu egin dute Parisen, 2004an kartzelatik ihes egiten ahalegintzearen. Eguztenean, hilak 25, bukatu zen epaiketa. Igor Letona ez zuten auzitegiara eraman ere egin.

Hain zuzen ere, epaiketa horrek bi egun iraun ditu eta batean ere ez dute eraman Letona deklaratzera. Kontua da kartzelatik auzitegi aldera irteteko orduan, Letonak ez zuen onartu miaketaren zati batzuk egitea. Horren ondorioz, kartzelan utzi zuten eta epaiketa egin zuten auzipetua aurrean egon barik.

Egoera horren aurrean, Letonaren abokatuak defentsa ahoz

egin beharrean, auzitegiari idatzi bat aurkeztu zion bere arrazoiak azaltzeko.

BI ZATITAN ZIGOR ESKAERA

Orain, Igor Letona eta haren senitartekoak epaiaren zain gelditu dira.

Fiskalak bi zatitan banatu du zigor eskaera. Lehen zatian hiru urteko espetxe zigorra eskatu du arrasatearrarendako, ihes egiten ahalegintzeagatik. Bigarren zatian, berriz, zazpi urte eskatzen ditu, esaten duelako Igor Letonak ihes egiten ahalegintzeko aurkeztu zuen papera lortzeko ETAren laguntza behar izan zuela. Beraz, ETako kide izatea leporatzen dio. Gauzak horrela, hamar urteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak.

Arrasateko Alderdi Sozialistak exekutiba berri du

U.M.

Exekutibaren erdia berri du Arrasateko PSE-EEK. Paco Gartzia bozeramaileak Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, "hobeto prestatuta dagoen jende gaztearekin" antolatu dute talde berria.

Halaber, Paco Gartzia esanetan, datorren urteko hauteskundeetara begira antolatu dute talde berria, "Arrasaten alkate sozialista nahi dugu-eta".

TALDEKIDE NAGUSIAK

Hala, bada, honako hauek osatuko dute datozen urteotan PSE-

EEren exekutiba: Idazkari orokorra Francisco Gartzia izango da; Antolaketa eta Administrazio idazkaria, berriz, Gregorio Atxutegi; Udal politikako idazkari izateko Miren Lana aukeratu dute; Gizarte politikako idazkari, berriz, Blanca Roncal. Herritarren partehartze idazkari Aritz Arrieta izango da eta Gazte eta Kirol saileko idazkari Ana Belen Granada.

BATZORDEKIDEAK

Horiekin batera jardungo dute batzordekide moduan honako hauek: Ismael Gonzalez, Matilde Martin, Isaias Carrasco, Juan Carlos Bañuelos, Mari Carmen Atxutegi eta Venancio Gartzia.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak


Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebun hizkiak

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ELKARRIZKETA

JABIER ARREGI

“Txakolina botilan egiten joaten da, horregatik edan behar da urte berean”

A.ARANBURUZABALA / U.MADERA

Egitaundi baserrira jo dugu, txakolinaren denboraldia hasi delako. Ibarrean, Kataide txakolindegaren zukuia ondo asko eza-guna da. Hala, Jabier Arregi sorotik atera eta hark erantzun dizkigu gura beste galdera:

Aurtengoa Angiozarren aurkeztu zenuten urtero moduan; ohitura duzue, ezta?

Bai. Nire andrea hangoa da eta nire ustez indarra eman behar zaie auzoko jaiei. Bestela ere nahikoa sakabanatuta egoten gara orain lana dela eta ez dela, eta ez gara elkartzen lehengo moduan.

Zuk edaten duzu txakolina?

Nik uste dut txakolina larregi edaten dudala. Asko gustatzen zait eta asko edaten dut. Eguerdian edaten dut eta gauean ere bai. Eta gauean ahal dela ez da edan behar. Ardorik ezta ere. Gauean edanez gero lo ez da ondo-ondo egiten; apur bat bizigarria da, eta orduan, hobeto eguerdian edatea bakarrik.

Koloreari dagokionez...


Aurten eguraldi oso ona egin du, aparta; kantitatea gutxitu egin da, baina kalitatez askoz hobea da, ze egon da denbora sikua eta Frantziako iparra. Orduan, mahatsa ez du erre; mahatsa oso ondo egin da.

Zaporea?

Lehenagoari esker, aurten garraztasun gutxiago dauka. Ona aterako da. Usainez ere oso ondo dago. Ez dakit zergatik, baina gure txakolinak usain oso ona izaten du, nik esango nuke beste batzuk baino usain hobea edukitzen duela.

Sagardoarengatik esaten da agudoegi zabalitzen direla kupe-la eta sagardoa gero joaten dela egiten. Txakolinarekin ere gauza bera gertatzen da?

Baita. Txakolina egiten joaten da. Pasatzen dena da, denborarekin txakolina kenduaz joaten dela duen garraztasun hori eta aparrean joaten dela irabazten. Eta denbora luzean izanez gero, xanpaindu egiten da. Pasa daiteke



U.M.

botila barruan bigarren aldiz irak egitea. Hori egiten badu, kortxoa bota dezake. Horregatik txakolina edan behar da urte barruan.

Txakolina edateko apurtu egin behar dugu, edo ez?

Nik uste goitik botatze hori dela zeremonia apur bat. Bizkaitarrek esaten dute ardoa dela eta haiek ez dute goitik botatzen. Hemen ohitura dago goitik botatzeko eta nik uste dut ez hori dela txarra, ze goitik botatzen denean, usainak zabaldu egiten dira eta usaina bera ona da, hartu egin behar da. Nik erdibidetik botatzen dut.

Eta kantitatea?

Behin, pertsona nagusi batek esan zidan: “Txakolina edan behar da gutxi eta sarri”.

Tenperatura?

Uste dut txakolina sartu behar dela hiru bat ordu lehenago frigorifikoan freskatu dadin, baina ez da denbora askoan eduki behar. 8-10 gradutan edan behar da.

Gipuzkoan, Getariako txakolina da ezaguna; berriz, Araban, Arabakoa eta Elorriakoa,

Bizkaikoa da. Baina hemengoa mahaiko ardoa da; zergatik?

Nik esango nuke hau Trebiño dela eta hori ez litzateke horrela izan behar. Pentsa ezazu arabarrak orain patataren jatorrizko deitura jartzen dutela. Eta zuk etxean bizi guztia sartu duzu patata, baina haiek jatorrizko deitura jartzen badute, *Patata* izena euren dako hartzen dute. Eta besteren batek *Patata* izena erabiliz gero, isuna ipiniko diote. Hori egiten dute txakolinarekin. Eta ni ez noa getariarren kontra, baina uste dut lege hori gaizki dagoela eta Diputazioak edo nahi duenak egin behar duela ahalegina hori konpontzen, ahalik eta agudoen. Hori da esatea moduan sagardoa Astigarraga dela bakarrik, eta baserrietan egiten dena ez dela sagardoa. Orain, arazoa konpondu ezinda gabiltza. Nire landareak handik ekarritakoak dira, Getariako berak dira. Baina orain gertatzen dena da batean txakolina ematen dutela eta bestean ardoa.

AHTren desjabetze aktak bertan behera geratu dira

Martitzenean, hilak 24, izan ziren Arrasaten Madrilgo Sustapen Ministerioakoak. Helburua zen Abiadura Handi-ko Trena egiteko desjabetze aktak sinatzea. Ekitaldia bertan behera utzi zuten.

Amazio Lakuntza alkateak esan digunez, martitzeneko ekitaldia bertan behera utzi zuten, hitzordua egiteko orduan sortu ziren akatsen ondorioz. Haren esanetan, zundaketak egiteko lurrak desjabetu behar dieten jabeei (nazpi dira Arrasaten) ez diete planoak eta beste zenbait dokumentu bidali. Ezta Udalarari ere.

Gauzak horrela, martitzeneko ekitaldia bertan behera uztea erabaki zuten; eta horrekin batera, erabaki zuten hemendik gutxira egingo zutela beste batzar bat, oraingo honetan, behar besteko informazio guztiarekin: “Hori guztia giro onean eta alde guztien adostasunarekin erabaki genuen”. Hala adierazi digu alkateak.

ZUNDAKETAK EGINGO DITUZTE

Dena dela, eta orain lurrak desjabetu ez arren, Sustapen Ministerioak jakinarazi zuten falta zaizkien zundaketak egin egingo dituztela. Haien esanetan, eskuratu dituzte-eta falta zitzaizkien lurjabeen baimenak.

San Baleixo jaiak Meatzerreka auzoan gaur, bihar eta etzi

Bestelakoan artean, gaur, egubakoitza, afaria egingo dute Meatzerreka auzotarrak, San Baleixo jaien hasiera moduan. Bihar, berriz, umeendako jolasak izango dira; eta etzi meza, abesbatzarekin.

Gaurko afaria 21:00etan hasiko da. Besteak beste, auzoko erretiratuak omenaldia egingo diete.

Bihar, berriz, 15:30ean haur eta gazteendako jolasak izango dira, eta 16:30ean hasita, Gorritiren animaliak (pottokak...) eta txokolatela-jana. Bestalde, 17:00etan, Mus Txapelketa jokatu dute,

auzoko elkartean. 25. aldia izango da. Parte hartu nahi duenak bertan azaltzearekin nahikoa du. Lau sari gertu dituzte Meatzerreka-koek: txapela eta 180 euro lehenengoarendako; garaikurra eta 120 euro bigarrenarendako; 75 euro hirugarrenarendako eta 50 euro laugarrenarendako.

Eta gauean, 23:00etatik aurrera, erromeria izango da, Anaiak taldearekin eta 01:00etan, txerri harrapaketa eta txokolate-jana.

Bukatzeko, domekan, 12:00etan meza esango dute San Baleixon, Gesalibar eta Garagartzako abesbatzarekin. Eta ostean, Lore Gazteak dantza taldeak saioa egingo du, 12:30ean.



U.M.

Baleixo zaindariaren omenez ospatuko dituzte jaiak Meatzerrekan; argazkian, ermita.

LABUR

Bizkaia etorbideko aparkalekua behin betiko onartu du Foru Aldundiak

Eraikin horrek, Kanpanzarrera bidean izango denak, 2.320 metro koadroko lursaila hartuko du, 10.350 metro koadro izango ditu eta 28 metro garai izango da. Bestela begiratuta, behe solairua eta beste zortzi solairu izango ditu, baita igogailua ere, Gorostiza auzoraino. Eta, hain justu ere, hori guztia eraikitzeko baimena eman du oraingo astean Gipuzkoako Foru Aldundiak.

arbolapeta

arrasate

★

beinke

MADINA ZURAK
Aroztegia

- ¥Olak
- ¥Aglomeratuak
- ¥Kontratxapatuak
- ¥Tablexa
- ¥Ateak
- ¥Egurrezko leihoak
- ¥Oin-inguruak
- ¥Zangoak
- ¥Aroztegiko osagarriak

Urbarri auzoa B-2 B S3 sektorea
¥Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 27
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

ZAPATUA, 28
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30

DOMEKA, 29
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

ASTELEHENA, 30
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99

MARTITZENA, 31
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

EGUAZTENA, 1
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

EGUENA, 2
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUBAKOITZA, 3
Español. Araba etor. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Especialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzaila 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaraz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	San Isidro
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (elebiduna)	

OHARRAK

SAN FELIPE APOSTOL
Etzi, domeka, San Felipe Apostol elkarteak batzar orokorra egingo du Amaia Udal Antzokian, 12:15ean. Horren aurretik, meza emango dute San Juan Bataiatzailearen elizan, 11:00etan.

OKENDOKO LUDOTEKAN JAIA
Gaur, egubakoitza, jaia egingo dute Okendoko ludotekan Okendoko eta Santa Marinako erabiltzaileek. Txokolate-jana egingo dute, eta jostailu berriak eta sorpresak izango dituzte. 17:30ean izango da.

BIHAR 'LARUNBLAI'
Bihar, zapatua, *Larunblai* jaia egingo dute Musakolako gazte txokoaren alboan. 11:30etik 13:30era eskulan txokoa izango dute.

GAZTETXOENDAKO IKUSKIZUNA
Bihar, zapatua, Ados antzerki taldeak *Einstein* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. Bi emanaldi egingo dituzte: bata 17:00etan eta bestea 18:30ean. Sarrera mugatuak egongo dira.

KONTZERTUAK GAZTETXEAN
Egubakoitzean, Asgarth eta UK Billen kontzertua. Eta zapatuan, Agressive Combat, Triskantza eta Puñalada taldeekin.

AEDrenAGENDA

SEASKA ETA DEBAGUNE
Seaskak eta Debagunek argitaratutako egutegiak salgai daude AEDn. Debaguneko, urtero moduan, ibarreko argazki zaharrekin apainduta dago.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Hego haize gogorak kalteak eta suteak eragin

Hego haize bortitzak hainbat sute handi eragin zituen Udala, Gara-gartza eta Bedoñan, eta pinudi ugari erre ziren. Horrez gain, Makatzenako etxe bat kiskali egin zen eta bi emakume ospitalera eraman behar izan zituzten. Suaz gain, haizeak zuhaitzak bota eta telefono posteak bota zituen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txikititu"



— Baldiakin eskaparate kristala txikititu giñuan.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOIA -1°C
Martitzena, 24

MAXIMOIA 12°C
Eguena, 19

ASTEKO EURIA (l/m²) 9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	11 °C	7 °C	5,8 l/m²
Eguena, 19	12 °C	8 °C	- l/m²
Egubakoitza, 20	9 °C	6 °C	2,1 l/m²
Zapatua, 21	12 °C	7 °C	1,1 l/m²
Domeka, 22	11 °C	3 °C	- l/m²
Astelehena, 23	12 °C	-1 °C	- l/m²
Martitzena, 24	12 °C	-1 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Toti Martinez de Lezea eta Kataideko txakolina, 'Asteko Gainbegiratu'-ko izarrak

Itxaropena da bere izena, baina Toti moduan da ezagunagoa. Abizenez, Martinez de Lezea. Ogibidez, 1998an lehen liburua argitaratu zuenetik, idazlea, etxeokandere lanekin tartekatuta. Martitzenean izan zen gurean, literaturaren geltokian jaso genuen. Mingaina arina, berrikeria egitera ohitua eta irrifarrea ere samurra duela erakutsi zigun. Amama dela kontatu zuen, eta gauz idazten duela ere gaineratu zigun. Horrez gain, beste hainbat ipuin

kontatu zizkigun, eta guztiak berreskuratuko ditugu *Asteko Gainbegiratu*-n.

Protagonista gehiago izango dira: Kataide txakolindegiko Jabier Arregi, adibidez.

ASTELEHENETAN, KIROLN GELTOKIA

Asteburuak eman dituenak, astehenetan izaten ditugu berbagai. Kiroln geltokian fin-fin izaten dugu Juanito Arriaran. Baina, zuretako entzule badugu jarleku bat gordeta 943 71 17 31 telefono zenbakiarekin.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratu**. Toti Mtz. de Lezea, idazlea; Jabier Arregi, Kataide txakolinaren gainean; Iñaki Altuna, Info7 irratiaren gainean; Marta Garmendia, Mankomunitateko ingurugiro teknikariarekin;

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratu**.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
10:00-12:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Elkarriketak. Meteorologiaren geltokia (Peio Zabala). Zozketak. Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:20 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)


17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

17:15 **Zorion agurren tartea** (errep.)

KALEINKESTA/ Katalanek estatutuekin lortu dauena dala-eta, inbidixaik bai?




JONE AGIRRE
Langillie



JOSU GUTIERREZ
Langillie



MARIA DOLORES TENA
Langillie



MARCELINO ARENAZA
Langillie



JULEN LAZKANO
Iksaliek



MARIA LUISA PEREZ
Langillie

Egixe da hori kontu hori ez dotela askorik jarraitu. Ez dakit ondo ze lortu dauen, baiñe inbidixie emuten dust, gutxienez, katalanek berba egin eta norbaittekin egitzen dutzielako.

Pentsetan dot ez dauela gauza haundirik lortu, ala? Hori da kanpotik emuten dauena. ERC, behintzet, ez da bape pozik geratu. Alde horretatik, ezin esan inbidixie dauketenik.

Inbidixie... ez dakit ba. Kontue izengo litzake han egin dauena hamen be egittie. Hobeketako dien gauza danak ongietorriek izengo die, bai Kataluñan eta baitte hamen be.

Azkenien ze pasau dan ez dot jarraitu, baiñe emuten dau negoziaziñuek bide onetik juen diela. Baiñe itxoin egin biherko da; izen leike azkeneko zatixen problemak egotie.

Apur bat bai, hamen be biher da-eta kanbixoren bat. Han negoziatoko kapazak izen die; hamen, barriz, ondiokan jentie juntetie prohibiduten daue, BECen gertatu dan moduen.

Ez dakit esaten, ez dauket-eta informaziño haundirik. Badakit konpetentzia batzuk transferidu egin dauela, baiñe hortik aurrera... Gutxienez, akordio batera aillegau die.

ISTEAKUSTE

Izenak

Joan den astean hedabideak bueltaka ibili ziren Batasuna dela eta ez dela, BEC gora eta behera... Eta Barakaldoko alkateak adierazpen bitxiak bota zituen hedabideetan: orain arte Bilbo Exhibition Center esan eta esan ibili zirela, baina bat-batean kongresu polemikoaren harira Barakaldo besterik ez zutela aipatzen. Eskerrak gero Arnaldo Otegi *ayatolah*-k zalantza metafisikoa argitu ziola Basque Exhibition Center izendatu zuenean. Zeresana izango zuten seguruenik atzerriko leku askotatik Batasunaren kongresura etorritako delegazioek.

Pentsa arazi didan beste albiste txiki bat, askoz xumeagoa eta oharkabean gelditu dena: emakume batek kale hotzean erditu behar izan zuen. Ama eta umea ondo daude gazte batzuek lagundu zutelako. Albistearen bukaeran jartzen zuten lagundu ziotenak hegoalmerikarrak zirela. Alderantziz, gauza gertatu balitz, gauza txarren bat egin balute, kazetariak gazte horien jatorria lehenago aipatuko luke?

Orain etapa berri bat dator. Izenak zertxobait aldatuko dira, bestelako arropak jantziko ditu, espezializazioa zabalduko da, herriak gehiago elkartuko dira... baina jarrai diezaiozun gauza txikiei erreparatzen, horiek gabe ez gara ezer-eta. Hurrengo batera arte!

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK UDALETXEKO TELEFONOGUNEA Hainbat herritarrek jakinarazi digute udaletxeke telefonogunearen zerbitzuarekin oso haserre daudela. "Ez daukagu inolako kexarik telefonoa hartzen duen langilearekin, horretan ez dago-eta arazorik", argitu dute. Arazoa honako puntuan ikusten dute: "udaletxera deitzean langileren batek telefonoa hartu ostean beste langile batekin berba egin gura izanez gero, ez da posible izaten barrutik deia pasatzea. Hortaz, berriro deitu behar izaten dugu. Bada ordua konpon dezaten!"

ASTEKODATUA

4

IKASTARO ABIARAZI DITU UDALEKO GAZTE SAILAK

Udaleko Gazte Sailak lau ikastaro abiarazi ditu datozen hilabetetarako: txalaparta, alboka, argazkigintza digitala eta sabel dantza. Gazte Sailak hamalau bat urte daramatza halako ikastaroak antolatzen, eta orain arte oso harrera ona izan dute.

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Akiles

I lunkeran hondartzan bildu dira, kanpamendutik gertu, suak piztu dituzte olatuek ekarritako egurrekin, jainkoekin gogoratuz bildotsak sakrifikatu dituzte, gero, eta ardo gorria lagun, bapo afaltzeko, gerraren garrak gosea piztu die batailan bizirik atera direnei.

Aseta, gerlariak suen bueltan bildu dira, berbetan, jokoan, kantuan beste hainbat. Zenbaitzuk, emakume faltan, dunen ostera ezkatatu dira, gorputzaren beste gose horiek asetzeko, antzinako greziarrak izaki, zulo oro lubaki.

Greziako heroiak ere han dira, hondartzan, Ajax handia, Odiseo Itakakoa, Agamenon denen buruzagia, baita Akiles ere, Tetis ninfaren semea. Eztabaidan, sutsu, ozen, oldar, bihar borrokan, haizea baino arinagoa naizen honek, nik neronek hautsiko ditut Troyako harrisetako atea neure beso ahaltzuz, bota du Akilesek harrosko. Haizea baino arina-

goa haizen horrek ezin ostera hondarretan arrautzak erruten ari den dortoka horri arineketan irabazi, Eleako aguretxo bizar-zuriak orduan erantzuna. Akilesek tximistaren pare eraman du eskua ezpataren kirtenera, gero barrezka hasi da, lehertzen, kirtena.

"Aseta, gerlariak suen bueltan bildu dira, berbetan, jokoan, kantuan beste hainbat"

Lasterketa beraz, ia nor lehenago heldu bost estadiotara den Agamenonen dendara, ehun pausotako alde eskatu dio dortoka-erantzut agureak. Bai gizona. Hor doa tximistaren pare heroia, baina kelonidoa abiatu den lekura helduta, hamar pauso aurrerago da bestea, hara heldu eta pauso bat egina du dortokak, eta halaxe ad infinitum, eginahalak eginda ere ezin harrapatu. Amorruren amorruez ahotik bitsa dariola, lurrera erori da Akiles, lehertuta, maldizioka, mekaguen presokratikoak.

Haizea baino arinagoa? Hau duk geldoagoa zera, egurrezko zaldia baino, esan du norbaitetek.

IKER BARANDIARAN

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Kepa Martelo

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Bereziar
Amaia Mundinano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA-
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila




Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Azken urteotan moduan, Jonathan Perezek Real Sociedad taldea ordezkatzeko du bihar Valentzian.

ATLETISMOA/ Euskadiko Txapelketan zazpi domina eskuratuta, asteburuan gehiago

Jonathan Perez Valentzian eta Markel Blanco Lasarten

XABIER URTZELAI

Joan den asteburuan Arrasateko atletek Anoetan utzitako zapore gozoari jarraipena eman gura diote Jonathan Perezek eta Markel Blancok. Jonathan Valentzian lehiatuko da bihar eta Markel, berriz, Lasarteko krosean etzi.

Bihar bertan egingo du jauzi Jonathan Perez Valentzian, Espainiako Txapelketan. Euskadiko txapeldunak estatuko pertika jauzilari onenen artean egoteko bost metroko jauzia izango du helburu; hori da bere erronka nagusia, azken urteotako ametsa.

MARKEL BLANCO DOMEKAN

Eta, maila gazteetan progresio ona izaten dabilen Markel Blanco Lasarteko krosean izango da domekan. Arrasatekoak proba hori prestatzeko, gustuko hainbat lasterketa utzi behar izan

ditu alde batera; besteak beste, joan den astean Elgoibarren egin zuten Juan Mugertza lasterketa. Arrasatekoak badaki Lasarten lehena helmugaratzea zer den, infantil eta kadete mailetan egin du-eta lorpen hori. Joan den urtean hirugarren izan zen gazte mailan, eta domekan ere kategoria horretan lehiatuko da.

Horrekin batera, azpimarratzekoa da joan den astean Arrasateko atletek Anoetan eskuratutako zazpi dominak. Urrezkoak: Iñaki Etxagibel 60 metroetan (07:30), Lander Errasti pertika jauzian (4,20 metro). Jonander Amadorendako izan ziren zilarrezko biak, 200 metroetan (23:53) eta 400 metroetan (53:53). Bontzezkoak: Imanol Esperesate 400 metroetan (55:14), Oihane Urtzelai luzera-jauzian (4,22 metro) eta Iñaki Etxagibel 200 metroetan (23:93). Eta, 60 metroko lasterketan seigarren

izan zen Gillen Mar (07:89). Fernando Zufriaren esanetan, marka on horiek gogor entrenatzen segitzeko lagungarri izango dira.

FUTBOLEAN, ORDIZIA ATXABALPEN

Mondrak aurten galdu dituen puntuak burutik kendu eta aurrera begiratzeko beharra du. Oraingo helburu nagusia da joan den urtean otsail inguruan izan zuten bola-da negargarria ez errepikatzea. Eta taldeak behar beste baliabide ditu horretarako, behin baino gehiagotan erakutsi duen moduan. Hasteko, Arrasateko taldeak badu biharko egin behar bat: Ordizian jasandako porrotaren errebantxa hartu. Hirugarren postuan dagoen Ordiziak eskuin aldetik egindako bi jokalditan erabaki zuen joaneko norgehiagoka. Biharko partiduari dagokionez, seguru Mondrak izango dituela gol aukerak. Izan ere, horiek ez dira falta, baina bai golak.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

URTARRILAK 28, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: AC Surcos - Aurrera Bol.	Iluntz
12:00: Iluntz - Berdes Bremen.	Aurrera Bol.
13:00: Pippol - Saukelu Scream.	Berdes B.
16:00: Lasagab. - Betrayer.	Fuxxion
17:00: Fuxxion - Abokajarro.	Lasagabaster
18:00: Irish Pub - Txoponbeixek.	Aboka.

URTARRILAK 29, DOMEKA. EPAILEAK

10:50: Iriztu Taberna. - THC	Billy & The...
12:00: HLB 108 - Billy & The...	THC
13:00: Arrano Tab. - Dribling	HLB 108

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Betrayer	18	7
2. Dribling	18	7
3. Saukelu Scream	15	7
4. Arrano Taberna	15	7
5. Lasagabaster	13	6
6. Iriztu Taberna	13	6
7. Fuxxion	13	7
8. Billy & The cowboys	12	7
9. Iluntz	10	7
10. Abokajarro	10	6
11. Pippol	10	7
12. AC Surcos	9	7
13. AT Celaya	9	7
14. Irish Pub Dublin	9	7
15. HLB 108	9	7
16. Txoponbeixek	6	7
17. Aurrera Bolie TMT	6	6
18. Tomahawk	6	7
19. Berdes Bremen	0	7
20. THC	0	7

LEHIA HANDIA AURREKO POSTUETAN

BETRAYER ETA DRIBLING LIDER, INDARTSU DATOZ ATZECOAK

Joan den astean aipatu genuen lider zeudela Betrayerkoak. Eta hori esatearekin batera 8-5 galdu zuten Fuxxionen kontra. Gauzak horrela, Driblinge harrapatu egin ditu, eta lehenengo postua bi talde horiek partitu beharko dute. Atzetik datozenak, baina, ez daude aurrekoen akatsak barkatzeko gertu. Bi talde daude, Saukelu eta Arrano Taberna garaipen bat gutxiagorekin, eta ezin ditugu ahaztu Lasagabaster eta Iriztu taberna, oraindik norgehiagoka bat daukate-eta jokatzeko. Atzerapenei dagokionez, joan den astean Abokajarrok eta Aurrera Boliek ez zuten jokatu, eta oraingo astebururako esan digutenez, AT Celayak eta Tomahwk-ek ere ez dute jokatu.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Ordizia Preferentea. Domekan. 16:00. Atxabalpen.
Mariño - Mondra Ohorezko Gazt. Zapatuan. 19:30. Irunen.
Arrasate - Sanpedrotarra Big. Gazteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.
Urnietan - Arrasate Kadete. Zapatuan. 16:00. Urnietan.
Arrasate - Sporting de Herrera Infantilak. Domekan. 10:00. Atxabalpen.
Gasteiz Cup - Mondra Emak. Igoera fas. Domekan. 17:00. Gasteizen.

ERRUGBIA

Eibar - Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Unben.

SASKIBALDIA

Mugarri Alkesa Arrasate - Urdaneta Igoera fasea. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Mugarri Alkesa - Erroibide Car. Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.
Mugarri Alkesa - Andraitz Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Donostian.

ESKUBALDIA

Ford Mugarri Arrasate Lehen Territorial maila. Atsedena.
Tolosa - Arrasate Eskubaloi Big. Territ. Domekan. 12:00. Tolosan.
Leizaran - Gatz Museoa Jakion Gazteak Mut. Domekan. 10:00. Andoainan.
Gatz Museoa Jakion - CD Egia Kadet. Mutilak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Ados taldearen helburua da modu ludikoan matematika, fisika eta bestelako gaien gaineko jakin-mina zabaltzea.

Albert Einstein zein izan zen eta zer asmatu zuen jakiteko ikuskizuna

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, ikuskizun berezia egingo dute Amaia Udal Antzokian, 6 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako. Ados taldeak bi saio eskainiko ditu: bata, 17:00etan; eta bestea, 18:30ean.

Albert Einstein alemaniarra zientzialaria izan zen, eta, batez ere, Erlatibitatearen Printzipioa asmatu zuelako egin zen horren ospetsua. Hala, hark asmatutako hainbat printzipio eta zientzialaria bera zelakoa zen ezagutzeko ikuskizun berezia sortu du Ados antzerki taldeak, zientzialariaren izen bera duena.

Garbi Losadak eta Jose Antonio Vitoriak hartu dute lan hori idatzi eta zuzentzeko ardura. Bestalde, Mikel Sarriegi aktorea izango da Einstein taula gainean.

ANTZOKIAN, BAINA KARPA BARRUAN
Einstein izeneko emankizuna ez da ohikoa, hainbat berezitasun ditu-eta. Hain zuzen, Amaia Udal Antzokiko taula gainean karpa erraldoi bat jarriko dute, eta han barruan izango da ikuskizuna. Arrazoi horregatik, saio bakoitzera ezin izango dira 70 lagun baino gehiago joan.

GALDERE! ERANTZUNAK EMAN
Ume eta gaztetxoek denboran zehar bidaiatu eta iraganera joko

dute Einsteini hainbat galdera egiteko. Einsteinek gaztetxoek erantzunak argitzen laguntzeko hainbat teoria azalduko ditu, zientzialariak berak gaztaroen asmatutakoak.

Bestalde, ikusleek oso modu interaktiboan esku hartzeko aukera izango dute, eta zientzialariaren hainbat alderdi deskribituko dituzte, hala nola, zientzialaria bihozbera, despistatua, atsegina eta abegitsua zela.

Garbi Losada eta Jose Antonio Vitoriaren helburua da Einstein eta gaur egungo gaztetxoak elkartzea. Hain zuzen ere, matematika, fisika eta bestelako gaien gaineko jakin-mina jolasen bitartez zabaltzea.

Santa Agedako koroek eguenean egingo dute entsegua Karkabalen

I.B.

Otsailaren 5ean Santa Ageda eguna ospatzen da hainbat lekutan. Arrasaten, urtero moduan, bezperan, hilaren 4an, irtengo dira hainbat herritar abestera. Eguenean egingo dute entsegua.

Tradizioa da herrian Santa Ageda egunaren bezperan abestea. Aspaldi hasi ziren zeregin horretan, ospitale zaharreko tuberkulosidun gaixoei laguntza emateko. Ospitale hori aspaldi itxi zuten, baina herriko hainbat koadrilek hitzordu horri eusten diote urtero, eta abesteari esker

jasotako dirua Caritasi ematen diote, erakunde horrek herrian bana dezan.

IAZ 7.400 EURO BATU ZITUZTEN
Santa Agedako abesbatzak jakinarazi digu iaz 7.400 euro jaso zituztela, eta Caritasi eman zizkiotela. Gero, Caritasek horrela banatu zuen: ama ezkongabeei, 2.000 euro; ama bananduei, 1.500 euro; zailtasun fisiko edo psikikoak dituztenei, 1.800 euro; alokairuak ordaintzen laguntzeko, 1.500 euro; eta etxe bakoei, 600 euro. Bide batez, abeslariak eskerriak eman gura dizkiete herritarrei

urtero halako laguntza ematearren.

“Ohitura zaharrari eutsi eta herria giroteaz gain, ekimen horren helburua da dirua batzea behartsuenen artean banatzeko”, azpimarratu zuten abesbatzako lagunek.

ENTSEGU ETA BATZARRA, EGUENEAN
Horrez gain, jakinarazi zuten eguenean, otsailaren 2an, egingo dutela batzarra Karkabal gastronomia elkartearen, 21:00etan. Abeslariak entsegua egingo dute, eta bestelako laguntzaileek, berriz, batzarra.

LABUR

Bihar, zapatua, Zahar Berriko berba taldeak irteera egingo du Txillida Lekura

Zahar Berri elkarteak hainbat ekitaldi egiten dihardu. Joan den eguenean AEK-ko eta Udal Euskaltegiko ikasleek pintxo lehiaketa egin zuten AEDko tabernan. Antolatzaileek esan digutenez, pintxoan maila oso ona izan zen eta oso giro ona izan zuten lehiaketan goizez eta arratsalde. Bestalde, aditzera eman digute zapatuan berba taldeak Txillida Lekura irteera egingo duela. 10:00etan elkartuko dira Arbolapetan eta gura duenak joan ahal izango du. Autoetan joango dira eta arratsalderako bueltan izango dira. Gasolina eta sarrerak guttien artean ordainduko dituzte.

Sonic Revolution, Asgarth eta Mallorkako taldeen emanaldiak


I.B.

Gaur, egubakoitza, eta bihar, hainbat kontzertu egingo dituzte herrian. Bat 3.60 aretoan eta bi gaztetxean. Heavya, rock-and-rolla eta punka musika estiloak izango dira entzungai.

Gaur, egubakoitza, punta-puntako heavy doinuekin jantziko dute gaztetxea. Donostiako Asgarth eta UK Bill taldeek kontzertua egingo dute. Asgarth taldeak ibilbide luzea dauka eta askoren ustetan Euskal Herriko heavy talde onenarikoen artean koka dezakegu. Une honetan *...garrasia* izeneko laugarren diskoa aurkezten dabil. Euren batera, Donostialdeko musikari ezagunek (Utikan...) osatutako UK Bill talde berriak esku hartuko du.

Bihar, zapatua, berriz, musika eskaintza bikoitza izango da herrian. Gaztetxean Arrasateko Agressive Combat taldeak Oi! musika jorratuko du, eta Aretxabaleta eta Oñatik Puñalada eta Triskantza taldeek punka egingo dute.

MUSIKARI EZAGUNEN DIBERTSIO TALDEA
3.60 aretoan ere egongo da zer ikusi eta entzun zapatuan. Mallorkako The little kiss eta Empleado del mes hurbilduko dira. Horrez gain, luxuzko gonbidatu batzuk ere igoko dira taula gainera, Sonic Revolution izenpean: Safety Pinseko Juan, Señor No taldeko Xabi, El Corazón del Sapoko Guillermo, Obligacionesko Pela eta Lobo Electrico Guantxe. Dibertsio gisa, hainbat bertsiotzen dituzte: Dead Kennedys, Alice Cooper, Flaming Groovies...



Safety Pinseko Juan, Señor Noko Xabi eta El Corazón del Sapoko Guillermo, irudian.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 ¥ ARRASATE

BOTEPRONTUEN

NIREBIDAIAHURA / Urtzi Axpe

Laos / 2005eko uztailearen 24tik abuztuaren 24ra

Joan den astean lehenengo etapa egiten utzi genituen Urtzi Axpe, Iban Okina, Oier Sarasua, Agurtzane Azkargorta eta Aitor Gartzia. Eta, besteak beste, bizikletan lehenago hasi behar zutela ikasi zuten egun hartan: "05:00etan esnatu eta 06:00etan hasi genuen hurrengo eguneko etapa. 45 kilometro egin genituen, Pakmong-eraino, eta han ahalegindu ginen ostatua hartzen. Kanpoan argi gorri xelebreak zituen etxola batzuetan egin ziguten tokia, eta han igaro genuen arratsaldea, siesta egiten. Gauean, berriz, motor hotsa entzun, eta bikote bat ondoko etxolara sartu eta han hasi ziren jo eta sua. Ni ez nintzen askorik enteratu, baina esan zidatenez, hura zen hura oihera egitea... Eta ez zen bikote bakarra izan. Itxuraz, putetxe moduko batean eman ziguten ostatua".

Hurrengo eguneko etapa menditsua izan zen, Pakmong eta Oudomxay banatzen dituzten 85 kilometroak gora eta behera egin zituzten: "Ez geneukan etaparen profila, eta ez genekien zeri egin behar genion aurre. Anana (piña) ederrak jaten genituen indarrak berreskuratzeko, eta helmugatik 20 kilometrora bazkaldu genuen. Jatetxeko andreak arropak garbitzeko gonbidapena egin zigun. Berriz esango dut hango biztanleekin ederto moldatu garela". Uste baino



"Lehenengo euri zaparrada gozatu egin genuen, lehenengoa zelako edo..."

"Argi gorri xelebreak zituzten etxoletan egin ziguten tokia; gauean bikote batzuk etorri eta..."

indar handiagoa ematen zuten anana haiek, hirugarren egunean bi etapa egin zituzten-eta: "140 kilometroko etapa egin genuen, Oudomxay-tik Luang Namtha-ra. Tartean herri batean geratu gura genuen, baina konturatu barik atzean utzi genuen.

Etapa hartan hartu zuten lehenengo zaparrada: "Montzoi garaia zen, eta zaparrada harekin gozatu egin genuen. Geroago etorriko ziren horrenbeste-ko grazirik egin ez ziguten eurijesak. 30 kilometro geratzen zirenean, taldeko batzuek autobus modukoa (tuktuk-a) hartu zuten, eta besteak bigarren zaparradari egin genion aurre. Erabat lokaztuta iritsi ginen Luang Namtha-ra, eta han, egun batzuk lehenago ezagututako Frantziako lagun batzuekin elkartu ginen. Zelan iritsi ginen eta zenbat kilometro egin genituen ikusita, euskaldunen gaineko komentarioa egin zuten; astoak ginela, hain zuzen".

Hurrengo egunak atsedean hartzeko aprobetxatu zituzten (abuztuak 2 eta 3). Bizikletak ordurako arazoak ematen zebiltzan, eta bazegoen zer konpondu. Datorren astera arte, kilometroak beste anekdota geratzen dira eta kontatzeko.

XABIER URTZELAI



Zezilia Ipiña

MONDRAGON HOTELEKO HARRERAKO ARDURADUNA

Badie zortzi urte elgoibartar hau Mondraguen dabilela lanien. Turismue ikasi biherriren, modulue egin euen Oñatin, eta horrei esker hasi zan hotelien lanien: "Elgoibarren hotelik ez daunez, Mondraguera etorri biher..."

Zelakue da hotel bateko harrerako lana?

Pentsau baiño konplikaziño haundixae dauko. Jentiek pentsetan dau klientiei habitaziñue zein dan esatie eta giltzak emutue dala dana, baiñe lan gehixau egitten dou. Fakturak erueten lagundu, reklamaziñuek egin...

Lan kontuengaitik etorriko die kliente gehixenak. Eta turismue egittera etorten da iñor?

Bai. Askotan hiriburuetako hotelak beteta dauzenien etorten die hona, eta hamendik jueten die batera eta bestera.

Inguruen ze bisitau leiken preguntetan dutzuenien, zein da zuon erantzune?

Egixe da jentiek normalien Donostian edo Bilbon gaiñeko informaziñue eskaketan dauela. Baiñe badau hamen inguruen ibilli gure dauenik be, eta harei esaten dutzou Arantzazure jueteko. Paraje berezixe da, eta askok eta askok mendi bueltie egin gure izeten dauenez, Arantzazuko inguruetan ederto.

Ze dauko Mondragon hotelak ona?

Beste gauza batzuen artien, lekue. Kalien dau, eta bazkarixe edo afarixe euki dauenak ez dauko zertan kotxie hartu lo egittera jueteko.

Laneko gauza onena?

Klientiekin tratue, duda barik.

Eta txarreña?

Reklamaziñuek egin biher izetie, ez da agradabile izeten.

Zenbat balixo dau gaba pasetiek?

Prezio diferentiek dauz. Aste bukaerako suitak 98,60 euro balixo dau, eta prezio horrei BEZA (IVA) gehitu biher jako. Eta bikotiek badie txanpan botellie erregaletan dutzou. Aste barruen, gela indibidualak 72 euro balixo dau. Baiñe esan biher dot aste bukaerarako prezio espeziala daukoule: 30 urte baiño gaztiauek dien bikotiendako 46,70 euro balixo dau geliek.


Definidu zeure burue.

Gurau dot bestiek definidutie.

Pelikula bat/Liburu bat/Musika talde bat.

Mucho ruido y pocas nueces/Orgullo y prejuicio/Rod Steward.

XABIER URTZELAI



Vang Vieng-eko inguruetan, urak hartutako bidea zeharkatzen.

ZUBIZARRETA
LANTEGIAKGipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65BITTORI
ERRETEGIAEguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAKMeatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE



PINTXO ONAK EGITEKO EZ DA EGA TITULURIK BEHAR, ALA?

Zahar Berri ekimenaren barruan, joan den egunean AEDko txokoa elkartu ziren AEK-ko eta Udal Euskaltegiko ikasleak, pintxo lehiaketan esku hartzeko asmoz. Lehengaiak aukeratu, eta hantxe ibili ziren, goiz eta arratsalde, irudimena erabiliz ahalik eta pintxo txukunenak egiten. Guk ez genuen pintxo horiek ikusteko edo dastatzeko aukerarik izan, baina dakigunez, parte-hartzaileetako batzuk Donostiako Alde Zaharreko edozein tabernatan lanean hasteko moduan daude. Izan ere, pintxo ederrak egiteko ez da EGA titulurik behar; borondatearekin eta gustu apur batekin...



ABAROAKO ERRETIRATUEN MAHAI-JOKO TXAPELKETAK BADITU IRABAZLEAK

Arrasateko erretiratuak ez dira aspertzen; Abaroan ez, behintzat. Orain eman dituzte aditzera zeintzuk izan diren mahai-joko txapelketako irabazleak. Tute txapelketan, Ventura Martinek eta Jose Encaladok osatutako bikotea izan zen onena eta Federico Palencia eta Maria Tarro izan ziren txapeldunordeak. Briskan, berriz, abilezia handiena erakutsi zuten Elena Egigurenek

eta Antonia Uribarrenek. Eta lehenengo postuaren atarian geratu ziren Angela Muñoz eta Ana Maria Murua. Eta billarrean ere jardun zuten: Jesus Uranga izan zen trebeena eta Roberto Mendi sailkatu zen bigarren lekuan. Goiko erretratuan daude guztiak, garaikurra eskuan dutela. Seguru gazte askok egurra jasoko luketela euren kontra, ez izan duda izpirik.



MONDRAKO EGUTEGIEN SARITUTAKO ZENBAKIAK

Mondrako kategoria guztietako jokalaria, gurasoak eta zuzendaritzakoak jo eta ke ibili dira, urtero moduan, egutegiak saltzen. Eta, egutegi horietako hiruk saria dute, urtarrileko *aldapa* leuntzen lagunduko dutenak. Hala, 2799 zenbakiak emango du sari handiena, 600 euro, hain zuzen. Gutxiagorekin ere konfor-

matuko ziren asko eta asko, 300. euroekin adibidez; 5964 zenbakiak emango du diru kopuru hori. Eta, 3122 zenbakia duenak 150 euro eraman-go ditu poltsikora. Bistan da azken zenbateko horrekin ezin daitezkeela larritasunak uxatu, baina afari eder bat egiteko bai, edo baita Mondrako errifa mordo erosteko ere.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilloia. 214 posta-kutxa ¥ ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

AISIALDIA/Txalaparta, alboka, argazkigintza digitala eta sabel dantza ikasteko aukera

Udalak zabalik du otsailetik aurrera egingo dituzten ikastaroetarako izenematea

IKER BARANDIARAN

Ez dago urrun joan beharrik urtero bizpahiru alditan ikastaroak egiteko. Azken hamalau urteotako ohiturari jarraituta, Udaleko Gazte Sailak beste eskola sorta bat abiarazi du datozen hilabeteetarako. Gehientsuenak otsailean hasiko dituzte.

Udaleko Gazte Sailak hamalau bat urte daramatza gazteendako ikastaroak antolatzen. Urtean birritan egiten ditu halako kanpainak, eta oso harrera ona izaten dute. "Badira hainbat ikasgai edo diziplina herritar multzo erraldoi batek ikasteko aukera izan duena, urte askoan eman ditugu-eta", azaldu zigun Gazteria Saileko teknikari Blanca Jauregik.

Otsailean hasiko dituzten lau ikastaroetatik hiru urterokoak dira; argazkigintza digitala, berriz, azken urteotakoa.

IKASTARO BATZUK LEKUZ ALDATU

Txalaparta eskolak otsailaren 17tik maiatzaren 13ra bitartean egingo dituzte, egubakoitzetan,

20:00etatik 22:00etara; eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara. Aurtan ez dira Musakolako San Isidroko lokaletan batuko, gazte-txean baizik, baina irakasleak betikoak izango dira: herriko txalaparta taldekoak, hain zuzen.

Angel Agiriano bergararra izango da albokako irakaslea. Otsailaren 18tik San Juanak artean Arrasateko Musika Eskolan elkartuko dira zapatu goizetan hiru txandatan 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Sabel dantzaren ardura Donostiako Jaione Albenizek izango du. Apirilaren 29tik ekainaren 10era bitartean zapatu goizetan egingo dute. Bi txanda egongo dira: hastapenekoak, 10:00etatik 12:00etara; eta sakontzekoak, 12:00etatik 14:00etara.

IKASTARO BATZUK LEKUZ ALDATU

Argazkigintza digitala eta Photoshop erabiltzen ikastekoa da gazteleraz egingo duten bakarra, gainontzekoak euskaraz dira-eta. Arrasate Argitan elkarteko Antonio Murillo izango da irakaslea, eta otsailaren 28tik martxoaren 30era emango dute Monterrongo

ordenagailuen gelan. Martitzen eta eguenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaro bakoitzeko matrikula 20 euro da (12 euro, ikasle eta langabeendako). Eta, horren harira, esan beharra dago edozeinek eman dezakeela izena, baina 35 urtetik beherakoek lehen-tasuna izango dute.

*Edozeinek eman
dezake izena, baina
35 urtetik
beherakoek
lehen-tasuna dute*

*Argazkigintza
digitala da
gazteleraz emango
duten ikastaro
bakarra*



Arrasaten aspalditik dago txalaparta jotzeko zaletasuna.

GRUPO RKUZ
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

ARKUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ARKUZ
COCINA INTEGRAL
Miria 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALZARIEN
Areba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKUZ
MOBILES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Lagunen aurrean ederto gelditu nahian?
Har ezazu lasaitasun!
Arkauz etxeak eskainitakoarekin txundituta geldituko dira.

Arkauz zure etxea da.

Matrikula epea 2006-2007

Otsailaren 6tik 17ra

Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H




Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73

ARRASATE



BERRIKUNTZAK:

• PROGRAMAZIOA

Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)

• INFORMATIBOAK

Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- 16 MM: Film laburren saioa
- MOTZEAN: Herritarrei elkarrizketak
- DIDJERIDU: Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



EZETZASMATU



'ARRASATE-MONDRAGON IRUDIAK' LIBURUA

Zein lantegi sortu zuten argazkiko hiru gizon horiek?
Arrastoa: urteekin eraldatu eta enpresa indartsu bilakatu zen.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Orlando tomate frijitua
410 g-ko lata + %20 doan

0,51€ 85 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RUFINO DELGADOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Rufino!
Galderen erantzun zuzena:
Kooperatiba San Jose.

ARRASATEKO HISTORIA

Amandre Santa Ines momiaren gainekoa

'ARRASATE GURE HERRIA'

Amandre Santa Ines bezalatsu ezagutzen dugu arrasatearrok, parrokian gordeta dagoen XVII. mendean bizi zen emakumezko baten gorpu momifikatua.

Nolatan momifikatu den? Ulertzen dutenek dioskutenez, ongi momifikatzeko baldintza hauek bete behar dira: gorputzak toki beroan, lehorrean eta aire korrontean egon behar du. Eta Inesek baldintza horiek betetzen zituela dirudi.

Ez pentsa Arrasaten bakarrik aurki daitezkeen momiak. Hona hemen Euskal Herrian dauudenak:

1- Santu Beltza (XVI. gizaldikoa), Rigoitia (Bizkaia).

2- Durangoko kondeak (XIV - XV), San Agustin elizan (Elorrio).


3- San Fausto (VII), Buxandan (Araba).

4- Santa Katalina (XVI), Iruñean (Nafarroa).

Baina nor da *Amandre Santa Ines*?

Ba, Ines Ruiz Otalora izenez ezagutzen den etxeoandrea.

Jakin badakigu zenbait datu. Alde batetik, haren aitak oso



Amandre Santa Inesen momia parrokian ikusgai ipini zuten 1989ko udaberrian.

'ARRASATE GURE HERRIA' LIBURUA

kargu inportanteak izan zituen Felipe IIaren (1527-1598) erregearen gortean. Bestetik, Ines Rodrigo Okarizekin ezkondu zen eta ez zuen inongo ondorengorik izan.

Bizi balitz, nahiko emakume luzea izango litzateke, 1,67 metro-

Ines Ruiz de Otalora izeneko emakume baten gorpu da parrokian aurkitu zutena momifikatuta

koa, nahiz eta gaurko egunean metro eta erdi eta lau kilo bakarrik izan.

Zelan dakigu hainbeste?

Gero aipatuko ditugun zenbait xehetasunekin batera, dakigun guztia Zumarragako ospitalean Inesi egindako azter-

keta mediko baten ondorioz jakin dugu:


— Giltzurrunean “harriak” zeuzkala; bilis gaitza zuela eta seme-alabaren bat izan zuelakoa ere daude. Hala ere, beste gauza batzuekin azaldu zen. Jantzkeran eta moriskoen ohiturari jarraituz, fineziaz eginiko lihozko atorra luzeaz eta kordoi fin batez ikus zitekeen. Ilea biltzeko, berriz, kofia bat. Eta harrigarriena hau izan zen: Inesen gorputza zegoen hilkutxa barruan, beste kutxatxo batean hiru haur jaioberriren eta sei urteko baten hondakin organikoak zeudela.

Betidanik izan du Arrasatek Inesenganako aparteko benerezioa. Badirudi insomniao sendatzeko ahalmena leporatzen diotela zera esanez:

“Amandre Santa Ines bart einjot amets. Ona bada, bion partez; txarra bada, biok aldrebes inondako bes edo dihoala ihes”.

1989ko udaberrian egon zen ikusgai Ines parrokian. Erakusketa hartan, azterketa historiko nahiz antropologiko ugari ikus zitekeen. Gero, 1989ko maiatzaren 6an, egun hartako zenbait egunkarirekin batera, aspaldidanik zegoen tokira eraman eta ezkutatu zuten.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK

ZUMADIA
www.zumadia.com

AKADEMIAK

BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK

BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI
www.marrubi.com

ARozTEGIAK

ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK

WINTERTHUR
www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

AUTOS RIBEGOLA -BMW-
www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi

AUTO-KONTZESIONARIOAK

QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK

BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA

OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE MATERIALAK

SETALDE
www.setalde.com

ERROTULOAK

PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK

GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder

LILURA
www.lilura.com

ANGELA
www.angelaestetika.net

GIMNASIOAK

IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

HAUR PARKEAK

OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HIZKUNTZA AKADEMIAK

CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

HOTELAK

HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

INFORMATIKA

DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA

HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK

ANBOTO
www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI
www.inmokorosti-com

UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

JANTZI DENDAK

UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK

BASTER-ALDE
www.baster-alde.com

DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

LANTEGI ETA TAILERRAK

TALLERES CARPinsa S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

OINETAKOAK

KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OPARIAK

MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA

GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK

ADOX
www.adoxnet.com

TABERNAK

EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

TAXIAK

GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK

GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

ZERBITZU DIGITALAK

ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a

410. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Kirol etxea handitu edo berritzeko ideia lehiaketa jarri du abian Udalak, astean

MIRARI ALTUBE

Herriko kirol etxea txiki geratu zaigu eta gainera, berritu beharrean dago. Horregatik ideien lehiaketa antolatu du Udalak. Hiru hilabete izango dituzte arkitektoek proiektuak aurkezteko, eta ondoren, beste hiru hilabete epaimahaiak gustukoena aukeratzeko.

Han eta hemen ibili dira Udaleko hainbat ordezkari kiroldegiak ikusten, bai Euskal Herrian, bai kanpoan. Ikusitakoak ikusita ideien lehiaketa antolatu du orain Udalak herrikoa berritu eta handitzeko asmoarekin.

DAGOEN LEKUAN MANTENDU

Udalak gura du kirol etxea dagoen lekuan mantentzea, hau da, Markole auzoan. Baina proiektu egilearen eskuetan uzten du eraikina berritzea edo bota eta guztiz berria egitea. Gainera, aurrean daukan zelaia erabili ahal izango dute kirol etxeko instalazioak handitzeko.

Bestalde, Udalak badaki apar-kaleku beharra sortuko dela. Horregatik aztertu egin beharko dute automobilak uzteko lekurik egongo den: eraikin berriaren azpiko sotoan, kanpoaldean edo arkitektoak proposa dezakeen edonon.



Kirol etxea berritu eta handitzeko lehenengo pausoak ematen hasi da Udala; sei hilabeteren buruan proiektua eginda egongo da.

HIRU HILABETE EGITEKO

Arkitektoak bakarrik aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Oinarriko proiektua eta exekuzio proiektua idatzi beharko dituzte eta aukeraturakoa lanen zuzendaritzaz arduratuko da. Gainera, proiektua euskaraz zein gaztelaz idaztea eskatuko diote. Urtarrilaren 24ko GAO-n azaldu

ziren betebeharrak, eta orain hiru hilabete izango dituzte proiektuak udaletxean aurkezteko, hau da, apirilko azken astea bitartean.

Epaimahaiak gero beste hiru hilabete izango ditu proiektuak aztertu eta egokiena aukeratzeko. Epaimahaiak ondorengo osatuko dute: alkateak, kirol zinegotziak, hirigintza teknikariak, kirol

teknikariak eta Gobernu Batzordeko kideak. Lehiaketaren irabazleak lanen behin betiko proiektua eta lanen zuzendaritza jasoko ditu sarritzat. Bigarrenarendako 3.000 euro izango dira eta hirugarrenarendako 1.800. Dena dela, epaimahaiaren eskuetan egongo da sari guztiak eman edo ez, proiektuen kalitatea aztertu eta gero.

Kirol etxeak izan beharko dituen guneak:

- **Harrera**
- **Zona hezea:**
 - Igerileku estalia: 25x16 m
 - Igerileku estalia: 16x8 m eguzkia hartzeko zonarekin
 - Gorputz tratamenduko zona: 2 sauna / Lurrin bainua / Hidromasajea
 - Aldagelak
- **Zona lehorra:**
 - Kirolendako pista: 44x24 m
 - Fitness gela: 250 m²
 - Erabilera askotako 2-3 gela
 - Trinketa: 30x9,5 m
 - Boulder rokodromoa
 - Aldagelak
- **Kanpoko guneak:**
 - 2 tenis pista: 35x17,5 m
 - 2 padel pista: 20x10 m
 - Futbol 8ko kantxa edo jolas libreko gunea
- **Beste zerbitzu batzuk:**
 - Bulegoak:
 - Zuzendaritza / Bilerak gela
 - Taldeendako bulegoa
 - Masaje eta kirol medikuntza gela
 - Botikina
 - Taberna eta mahaien gunea
- **Mantentze-biltegia:**
 - Materialak gordetzeko biltegiak
 - Araztegi, aire giroitze... gelak

Poitiersera bidaiaria eta mendi irteera herriko presoan alde

M.A.

Herriko presoan egoeraren berri eman dute astean. Poitiersen dagoen Zuhaitz Errasti garbitasun greban dago, eta Cadizen dagoen Kepa Urrak 14 urte egin ditu kartzelan. Hori horrela, ekintzaz betetako aste burua izango da.

Egoera gogorra bizi du Zuhaitz Errastik Frantziako Poitiers espetxean. 30 egun egin zituen mitard egoeran, hau da, ziegan bakarrik

eta urtarrilaren 13an atera zuten. Ordubeteko bisitak asteburuetan gura zituelako protesta egin zuen, eta beste 30 egunerako sartu dute berriro mitarden. Urtarrilak 18 ezker garbitasun greban dago, gainera. Hori horrela, bidaiaria antolatu dute Poitiersera. Bihar, 06:00etan aterako da autobusa Azbeko geltokitik eta ilunkaran itzuli.

Kepa Urrak bestalde, 14 urte egin ditu kartzelan. Cadizko Puerto Ien dago orain, 1.132 kilometrorra, eta lagunaren bisitak muga

tu dizkiote. Hori gogorarazteko mendi irteera egingo dute etzi, domeka, Hiruatxera. Irteera ostean salda beroa banatu eta 13:00etan kale bilkura mugikorra egingo dute.

DANTZA TALDEA KONTZENTRAZIOAN

Gaur, ostera, hileko azken egubakoitza izanik, kale bilkura egingo dute herritarrek Etxerak deituta. 19:00etan izango da Durana kalean, eta Loramendi Dantza Taldeak ekitaldixoa egingo du bertan.



Zuhaitzen eta Keparen berri emateko prentsaurrekoa egin zuten eguaztenez.

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 28
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 29
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen.....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA.....	943 79 86 21
Faxa.....	943 77 18 54
Basobko.....	943 77 09 81
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea.....	943 71 18 62
Industrialdea.....	943 79 62 80
Institutua.....	943 79 79 00
Kirol etxea.....	943 71 26 28
Kultura etxea.....	943 71 10 27
Gazteria saila.....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola.....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI.....	943 79 57 40
KZGunea.....	934 79 94 44
Liburutegia.....	943 71 18 62
Loramendi EE.....	943 77 09 70
Ludoteka.....	943 79 05 81
Mankomunitatea.....	943 79 30 90
Murruxko ME.....	943 79 93 74
Musika Eskola.....	943 79 36 50
Osasun etxea.....	943 71 19 59
Otalora.....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa).....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola.....	943 77 03 77
Postetxea.....	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola.....	943 71 21 18
Taxi geltokia.....	943 77 12 64
Udal Bulegoak.....	943 71 18 62
Udaltzaingoa.....	943 71 18 63
Urats Gain.....	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate..... 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak.....	112
Eskualde Ospitalea.....	943 03 53 00
Ertzaintza.....	943 79 71 99
Gurutze Gorria.....	943 76 55 76
Larrialdiaik.....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 78 28 00

Sariak, gaur, Literatura Lehiaketako lanik onenei

M.A.

XVII. Loramendi Literatura Lehiaketak baditu saridunak, eta gaur, 19:00etan, banatuko dizkiete Udaleko eta Loramendiko ordezkariak. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen 217 lan jaso zituzten abenduan, inoiz baino lan gehiago jaso ere. Lan benetan orijinalen aurkitu dira gainera.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan izango da sari banaketa udaletxe zaharrean. Saridun izan edo ez lehiaketara aurkeztutako guztiek jasoko dute oparitxo.

GRABAKETA BAKARRA

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleek ipuinak eta poesiak aurkeztu zituzten. DBHkoek, oste-

ra, beste atal batzuk zituzten: amodiozko gutunak, komikiak, piropoak, grabaketak eta e-mail bidezko gonbidapenak. Grabaketari dagokionez lan bakarra jaso dute antolatzaileek, baina benetan polita. Arkarazon jaitako Mari Bengoari egindako elkarrizketa, hain zuzen.

Epaimahaiko kideen esanetan, benetan lan orijinalak aurkitu dituzte; ez hori bakarrik, geure euskalkian dotore idatzitako lanik ere egon da eta beti da pozgarria hori.

LIBURUA SARIDUNEN LANEKIN

Saridunen lanekin liburua kale-ratuko dute aurten, eta ondoren liburutegian eta ikastetxeetan banatu. Grabaketekin CDa ateratzea gurako lukete antolatzaileek baina oraindik ikusteko dago.



laz sariak jaso zituzten ikasle batzuek gaur arratsaldean ere jasoko dituzte.



Danborrada doinuak txistuarekin

Kontzertu bikaina eskaini zuten joan zen eguaztenean Leizarra musika eskolako ikasleek gaztelekuan. Txistulariak izan ziren protagonista, baina ez ziren bakarrik egon; perkusio taldekideak eta haurren abesbatza izan zituzten lagun. San Sebastian eguna pasatu berri, Donostiako danborradako doinuak jo zituzten: Retreta, Diana, Polka, Idiarena eta Donostiako Martxa. Otsailaren 2an, eguna, bestalde, txirula emaldia eskainiko dute gaztelekuan bertan, 18:30ean. / M.A.

LABUR

Eski irteera egingo dute otsailaren 11n Atxagaztek eta Eskoriatzako gaztelekuak

Eski irteera antolatu dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarrekin. Luz Ardidenera izango da otsailaren 11n, hau da, egun berean joan eta etorri. Irteeraren prezioa 40 euro da. Izena emateko gaztelekuetik pasatu behar da, eta azken eguna otsailaren 5a, domeka, izango da.

Batzar informatiboak egingo dituzte otsailaren 2an, eguna, Kurtzebarri eskolan

Matrikulazio garaia dator eta Kurtzebarri eskolak heziketa proiektuaren inguruko batzar informatiboak eskainiko ditu datorren astean. Otsailaren 2an, eguna, izango dira: 18:00etan euskaraz eta 19:00etan gaztelez. Hala ere, norbait ezin bada hurreratu egun horretan, dei egin dezala eskolara.

Egubakoitzean, otsailak 3, San Blas eguna ospatuko dute Sailuenteko ermitan, 10:30ean

Urtero legeez, herritar eta ikastetxeetako ume ugari hurreratu da Apotzaga-Etxebarri auzoan dagoen Sailuenteko ermitara San Blas eguna ospatzera. 10:30ean bedeinkatuko dituzte jakiak ermitan, eta 19:00etan parrokiaren esango duten mezan.

Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETAKO
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

EZKUTU
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 Y Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarrén 3- Behea ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

ELKARRIZKETA

ELISA ARNAIZ/BATUKAKO IRAKASLEA

“Aerobika baino lasaiagoa da batuka, eta dantzarekin zerikusia handiagoa dauka”

M.A.

Operacion Triunfo telebista saioak modan jarritako kirolak arrakasta dauka gurean ere. Abenduan hasi ziren batuka ematen kirol etxean, eta 40 bat lagun dabilta bi taldetan banatuta. Elisa Arnaiz da irakasleetako bat.

Zer da batuka?

Kirolaren eta dantzaren artean dagoen zerbait da. Operacion Triunfo telebista saioan asmatu zuten; hain zuzen, zuzendari zenak, Kike Santanderrek, abestiak asmatu zituen eta dantzariak koreografia prestatu zioten.

Zein ezberdintasun ditu aerobikarekin?


Batuka samurragoa da. Aerobikaren oinarriko pausoak erabiltzen ditu eta gero, behin eta berriz errepikatzen ditugu pausok. Lasaiagoa da, eta dantzarekin zerikusia handiagoa dauka.

Zein musika mota erabiltzen duzue?

Operacion Triunfo horretarako kaleratutako diskoa erabiltzen dugu. Musika latindarra da nagusi: salsa, rumba, kumbia, ballenatoa, regatona eta beste hainbat.

40 bat lagun dabilta kirol etxeko ikastaroan...

Bai, hala da. Martitzenetan eta egubakoitzetan ematen ditugu eskolak, eta talde bakoitzean 20 bat



M.A.

lagun ditugu. Gainera, badakigu jende gehiagok ere etorri gura zuela ikastaroetara eta leku faltagatik geratu dela kanpoan.

Zergatik dauka halako arrakasta?

Telebistaren eraginagatik, neuk pentsa. Oso samur ikasten dira pausoak, aerobikarenak baino samurrago, eta jendea lasaiago dator. Bestalde, musikak ere izango du zerikusia, leku guztietan entzuten da, eta barruraino sartzen den horietakoa da.

Esan zelakoa den klase bat.

Beroketa ariketak eginez has-ten gara, eta ondoren, aurreko kla-

seko pausoak gogorarazten ditugu. Gero, abesti berriaren pausoak erakusten dizkiet, eta behin ikasita hasieratik bukaerara errepikatzen ditugu.

Klase bakoitzean abesti berria eta pauso berriak?

Bai, abestiak berak esaten du zein pauso eta koreografia egin behar diren.

Noiz bukatuko duzue ikastaroa?

Otsailean, diskoko abesti guz-tiak emanda izango ditugulako. Batuka II ere badago, baina ez dakit bigarren ikastaro hori egingo dugun.

LABUR

Otsailaren 18an eta 19an egingo du Murruxiko MEk urteroko eski alpetar irteera

Urteroko eski alpetar irteera egingo du Murruxiko MEk otsailaren 18an eta 19an. Luz Ardindengo pistetara joango dira, eta ize-na Murruxikoko lokalean eman behar da, martitzenetan.

Bestalde, hasiberriendako eski irteera antolatu du otsailaren 4 eta 5erako. Zeharkaldiko eski irteera izango da, eta materialik ez duenak errentan hartzeko aukera izango du.

0-4 galdu zuen etxean Arlutz xake taldeak Gasteizko Ruta de Europaren aurka

Bazekiten partida gogorra zeukatela gasteiztarren aurka Arlutz xake taldeko kideek, baina benetan astindu ederra eman zieten eta 0-4 irabazi. Ezertarako aukera barik geratu ziren aretxabale-tarrak, askoz hobeto jokatu baitzuten kanpotarrek.

Bihar Donostiako Easo taldearen aurka jokatuko dute. Ohorez-ko Ligara igo berria da Easo, baina talde indartsuen artean dago.

Etxean jokatutako partida guztiak galdu zituzten eta kanpoan jokatutakoak irabazi

Hiru partidu jokatu zituzten joan zen astean etxean eta hirurak galdu: Gardoki/Akizu 15, Zazpitturri 22; Errasti anaiak 11, Beloki 22; eta Lasagabaster/Alzola 14, Ozkarbi 22. Kanpoan jokatu zute-nek ostera, irabazi egin zituzten: Eskoriatza 5, Perez de Labea-ga/Uribarren 22; eta Lazkao 17, Uriarte/Oion 22.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Idiazabal
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-A. Ondarroa
Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Txapagain
Bigarren mailako kadeteak.
Aretxab. - Txapagain
Bigarren mailako seniorrak.
Egubakoitza. 20:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Beti Gazte 1 UDA 2
Preferentea.
Union Txiki 5 UDA/Arizm. 3
Ohorezko gazteak.
UDA/Arizm. 3 Burumendi 1
Lehen mailako gazteak.
UDA/Arizm. 6 Aitzgorri 0
Lehen mailako kadeteak.
Intxurre 1 UDA/Arizm. 3
Bigarren mailako kadeteak.
Real Union 3 UDA/Arizm. 1
Ohorezko infantilak.

Real Union 0 UDA/Arizm. 1
Infantil txikiak.
Aloña Mendi 0 UDA 7
Alebinak.
UDA/Arizm. 5 Aloña Mendi 0
Emakumezkoak F-8.
Cafe Bar Tribuna Norte 6 -
UDA-Mercedes Goiko 2
Areto futbola.



Zenbaki
Aholkulariak



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68
www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es



Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42 - ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA


Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Martin
erloju-denda

Viceroy Fashion eta Lotus Style

Mitarte 16, Tel.: 943 79 01 72 - ARETXABALETA



ATREBENTZIAEZPADA/ Kirol etxie barritu edo barrixe egin gure dau Udalak. Ze pentsetan jatzu?



ESTHER ALMENDRO
Langillie



JOSE RAMON RODRIGUEZ
Jubilaue




TERESA GONZALEZ
Langillie



MANUEL VAZQUEZ
Jubilaue



ROSARIO URIARTE
Langillie



EDUARDO SILLERO
Jubilaue

Ez dakit, egixe esateko ez dait kirolik egiten eta ez naz faten kirol etxera; hortan, ez dakit ze biher daukon. Hala eta be, eskaketan hasiz gero kanpoko igerilekue eskatuko neuke.

Oso ondo, guztiz zahartute dau eta. Barrixe egin ez, konpondu egingo neuke dauena: frontoie hobetu pelota partiduendako eta igerilekuekin be zeozer egin; kanpuen jarri, esate baterako.

Barrixe egin ez, dauena barrituko neuke, leku onien dau eta. Lehendik ona aktibitate asko gehitu dittue; pilates, esaterako. Gelak be egokixek die: makiñendakue, spinning egiteko...

Oso ondo, ni egunero faten naz eta barriketiek ondo egingo dutzo. Igerilekue haundiketie eskatuko neuke. Egunero ibillten naz, eta nehikue justu geratute dau faten garenondako.

Ondo pentsetan jat; ni neu ez naz faten, inaugurau euenien fango nitzela pentsetan dot. Ez dakit jentiek ze gureko dauen, baiñe kanpoko igerilekue eukittie ondo egongo litzake.

Ondo, zahartute geratute dau, eta egin daixela barrixe. Fan izen nazenetan korriente haundixe eta hotz egoten dala pentsau izen jat. Bestelakuen ondo dau; makiñen gela, esaterako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK LORATEGIAK IRALABARRI PLAZAN Etxe multzo eta plaza berria ditugu herrian: Iralabarra plaza. Bizilagunek ia urtebete darabate hantxe, baina oraintxe dabilta plaza txukuntzen. Zulo bi ditu erdi-erdian eta zuhaitzak eta landareak jarri zituzten joan zen astean. 6,5 metroko zedro bana zuloetan, agudo haziko diren itxaropenarekin, eta lurreen, likenen antzeko lore bako landare berdeak. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Argindarra moztu zion Udalak gaztetxeari

Turabirak sortu ziren gaztetxeo... eta Udalaren artean. Urtarrilaren 24a arteko epea eman zien Udalak gaztetxeo arduradunei... alde egiteko, eta ez zuten... bete, argindarra moztu zion. Hala ere, gazteek ez zuten bere... alde egin eta manifestazio egiteko gertu azaldu ziren.



ASTEKODATUA

217

LAN LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETAN

Abenduan aurkeztu zituzten lan txoak Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako eta DBHko ikasleek. 217 guztira. Eta gaur, sariak banatuko dizkiete onenei Loramendi Euskara Elkarteko kideek.

BESTEKEESANA

Gure kooperatibak osagaiak egiten ditu: gas bidezko sukalderako, erosotasunaren arlorako eta berogailuendako. Zazpi lantegi ditugu kanpoan. Nazioartekotasunak, hau da, nazioartera zabaltzeak, etxeko lanpostuak bermatu dizkigu Copreci kooperatiban. Lanen espezializazioa ekarri digu eta lkerketa eta garapen sailak gora egin du. Izan ere, gaur egun ez daukagu beste aukerarik, eta horren froga da gure inguruko lehiakideek ere gauza bera egin dutela. Gure kanpoko lantegietan daukagun erronkarik garrantzitsuena orain zera da: "zela helarazi gure ezagutzak bertakoei?" Eta dagoeneko horretan dihardugu lanean.

AURELIO GONZALEZ
'Koop' aldizkaria/06-01-19

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Zer jan hura izan

Egunkariko elkarrizketa batean goiko esaerak duen esangura handiaren inguruan ari ziren berbetan bi lagun. Batak galdetu, besteak erantzun; motzean. Eta askotan konturatu gabe gertatzen zaigun moduan, irakurri ahala, buruari gora eta behera eragiten nion "arrazoi du" esanez bezala. Izan ere, solasean aurrera, zer, noiz eta zergatik jan behar dugun galdera aurkezterakoan, bertan ekoitzirikoa, garaian garaikoa eta osasuna zaindu ahal izateko jan beharko genukeela erantzun zuen gure lagunetako batek. Eta halaxe da. Duda barik. Zeren jatetik ez da inor libratzen.

Gaur egun, gainera, inoiz baino beharrezkoago ditu erosleak esaerak dioskun ehun begiak. Gero eta zulo handiagoa dugu elikagaien zakuan eta: aurrena, trikinosiak txerriak galbidera eramane zizkigun; behiak ere,

erotu zitzaizkigun ondoren; eta orain, oilo, oilasko, ahate eta gainerako hegaztiak aldrebestu omen zaizkigu. Nora goaz baina... A! eta barazki, fruta eta bestelakoak, badaezpada ere, transgenikoak, noski. Ederto baino hobeto. Susmoa besterik ez da, baina baliteke,

merkatari handien jokoren bat izatea; halako "alermen" atzetik bestelako elikagaien baten salmenta bultzatu eta indartzeko nahia egotea edo. Auskalo.

Dena den, komunikabideek sagutik otsoa azkar egiten dutela gauza jakina bada ere, arazoa nahiko larria dela edonork ebatzi lézake. Etxalde eta hustiakuntza handiak elikagai-industria bilakatzen ari badira eta merkatu handiak txikia desagerraraziko badu jai daukagu. Betiko ere ez gara, baina medikuntzan aurrera goazela pentsatuko dugu. Orain artean bezala hemendik aurrerakoan ere aurkituko dugu zer jan. On egin dagizueta janak eta gaitzik ez edanak.

"Gaur egun, gainera, inoiz baino beharrezkoago ditu erosleak esaerak dioskun ehun begiak"



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Leintz Gatzagako Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a / 241. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99



Turismo seinaleztapenarekin batera, Udalak jarri ditu Eskolako Agenda 21en hitzartutako beste seinale batzuk.

Turismo seinaleztapena jartzen hasi dira hirigunean

IKER BARANDIARAN

Turismo baliabideak ezagutzera emateko hainbat seinale, panel eta mapa jartzen dabilza herrian. Horrekin batera, herritarrek ibaia zain dezaten bestelako batzuk ere bai.

Ezagun da aspaldi honetan Eskoriatzako Udala herrian dituzten turismo baliabideak bultzatu eta ezagutzera emateko ahalegin handiak egiten dabilela. Beste ekimen askoren artean, orain dela gutxi Debagoieneko Mankomunitateari eskatu zion turismo seinaleztapenaren gaineko ikerketa egiteko. Mankomunitateak aholkatu zion Udalarari seinaleetako batzuk konpondu eta berriak ere jartzeko.

Udalak ez ditu seinale guztiak aldi berean jarriko. Asmoa da seinaleztapen osoa hiru urtetan egitea. Lehenengo ekinaldiko lana Rotudenak enpresari adjudikatu dio, eta lan horrek 11.120 euroko aurrekontua du.

ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA

Rotudenak enpresak hirigune barrukoak jarri beharko ditu, eta

dagoeneko zeregin hori egiten dabil.

Jarriko dituzten seinaleen artean, hiru mota nagusi bereiztu behar ditugu: turismokoak, zirkulaziozkoak eta Eskolako Agenda 21en barruan ikasleek eskatutakoak.

Turismokoei dagokionez, Jaurlaritzak ondare historiko-artistiko moduan izendatuta dituenak bereiztuko dituzte: Apotzagako hilerria, Udaletxea, Ganuza etxea eta San Pedro parrokia, hain zuzen ere.

Horrez gain, bi puntutan turismo informazioa azaltzeko herriko mapak eta panelak jarriko dituzte: San Pedro elizan eta Ibarraundi museoren aurrean.

Bestalde, asmoa dute herriko bi sarreretan eta herri erdian

baliabide turistikoaren norabidea zein den adierazteko beste seinale batzuk jartzeko. Ondare artistiko-historiko moduan izendatuta daudenez gain, unibertitate eta beste eraikin batzuk nabarmenduko dituzte. Modu berean, asmoa dute etorkizunean Zubiarte laba egokitzen dutenean hori ere behar den bezala seinaleztatzeke.

IKASLEEK ESKATUTA, IBAIA ZAINDU

Iazko ekainean, herriko ikasle talde batek Agenda 21aren baitan Udalarari hainbat eskakizun egin zizkion. Horietako bat izan zen ibaiaren alboan berau zaintzeko seinaleak jartzeko. Udalak lau jarri ditu, *Zaindu nazazu* leloarekin: Ibarraundi parean, San Pedro elizaren alboan, liburutegi parean eta autobus geltokian.

Jaurlaritzak ondare artistiko-historiko izendatutako eraikinek aipamen berezia dute

Helburua da herrian dauden baliabideak ezagutzera eman eta seinalaraztea

Ingurumenari dagokionez konpromiso handiagoa

I.B.

Udalak ingurumenaren gaineko hainbat erabaki hartu ditu azken egunotan. Udalsarea 21en sartu da; hortaz, Aalborgen gutuna berretsi eta Euskal Autonomia Erkidegiko ingurumena iraunarazteko konpromisoa ere hartu du. Horren harira, eguaztenean Jaurlaritzak diploma eman zion Udalarari.

Agenda 21 ekimenaren barruan, ibarreko udalak hainbat pauso ematen dabilta. Horien artean, nabarmentzekoa da Arrasatek ez ezik ibarreko beste udal guztiak berretsi dutela astean Udalsarea 21eko kide egitea. Arrasatek ez du pauso hori orain eman, ingurumenarekin lotutako konpromisoen alorrean gainontzeko herriak baino aurreratua dagoelako.

Udalsarea 21 ekimenean sartzeko, udalek bi konpromiso hartu behar izan dituzte: Aalborgeko


gutuna berrestea, batetik; eta EAeko ingurumena iraunarazteko konpromisoa hartzea, bestetik. Eskoriatzan horiek betetzea onartu zuten atzoko (eguna) osoko bilkuran.

DIAGNOSTIKOA ETA EKINTZA PLANA

Datozen egunotan Udalak herriaren diagnostikoa eta ekintza plana zehaztu beharko ditu. Hain zuzen ere, asmoa da otsaileko osoko bilkuran ekintza plana adostea. Horrekin batera, aurrekusi dute hiru bat atera ingurumenaren gaineko foro orokorra deitzea. Foro hori herriko elkarte, enpresa eta interesa duten herritarrek osatzen dute. Iazko apirilean batu zen foroa azkeneko aldiz.

JAURLARITZAREN DIPLOMA

Herenegun, eguaztena, Jaurlaritzak diploma bana eman zien Udalsarea 21en esku hartu duen udalei. Iñaki Pierruges izan zen Eskoriatzako ordezkaria.



Ume eta gazteei literatura sustatzeko

Astean herriko ume eta gazteek literaturaren gaineko jardunaldiak izan dituzte, Bibliotekak antolatuta. Gaztetxoek Gabon aurretik egile horren lanak aztertu zituzten, eta astean, idazle, ilustratzaile eta poeta horiek eta euren lanak ezagutzeko aukera izan dute. Hain zuzen ere, Mikel Valverde (argazkian), Pello Anorga eta Juan Cruz Igerabide izan dira herrian. I.B.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOLEKO NORGEHIAGOKAK


Zapatuan ohorezko ligako taldea CD F. A.C.D. Herma-
ren kontra lehiatuko da.
Eta domekan 1. mailako
taldeak CD Lo + bederatz
taldea izango du aurkari,
17:00etan. Jubenil taldeak,
berri, atseden izango du.

SASKIBALOI TALDEEN NORGEHIAGOKAK

Zapatuan 2. mailako
taldeak Bera Bera Grosen
kontra jokatu du. Kadete-
ek ere egun berean jokatu-
ko dute, eta CD Internacio-
nal izango dute aurkari
16:00etan. Junior taldea,
berri, Aloña Mendirekin
neurtu beharko da dome-
kan, 11:00etan.

ESKI IRTEERA ANTOLATU DUTE GAZTELEKUTIK

Otsailaren 11n, Eskoriatza-
ko eta Aretxabaletako
gaztelekuek eski irteera
egingo dute Luz Ardidene-
ra. 40 euro ordaindu behar
da, eta izena emateko
azkeneko eguna otsailaren
5a izango da.



Luis Ezeiza eskolaren ondoko oktogonoetan emango dute zerbitzua.

Irailean zabaldu gura dute haurreskola publikoa

IKER BARANDIARAN

Joan den astean hasi zen Udala Luis Ezeiza eskolaren ondoko oktogonoetan haurreskola egiten. Asmoa da lanak hiru hilabetetan bukatzea, eta 0 eta 2 urte arteko umeek irailan ikasturtea han hastea. Egokitze lanek 295.900 euroko aurrekontua dute, eta Udalak Aralan enpresari esleitu dizkio.

Datorren ikasturtean 0 eta 2 urte arteko umeendako haurreskola publikoa abian egongo da Eskoriatzan. Hala adostu zuten Udalak eta Jaurlearitzak zerbitzu hori emateko sortu zuten partzuergoa. Udalak utzi du egoitza eta bera arduratu da egokitze lan guztietaz. Horren ostean, partzuergoa arduratuko da egoitza hornitzeaz eta langileak kontratatzeaz.

Udalak Aralan enpresari adjudikatu dizkio lan horiek, eta 295.900 euroko aurrekontua dute. Hiru hilabetetan bukatzea gura dute. Eskoriatzako alkate Juan Carlos

Bengoaren esanetan, "asmoa da lanak lehenbailehen bukatzea, maiatzean egoitza hornitu, eta matrikulazio kanpainarekin batera, langileak aukera ditzaten".

MAIATZEAN MATRIKULAZIO ZABALDU

Goieskolako arduradunek aditze-
ra eman digute zerbitzu hori 0 eta
2 urte arteko umeendako izango
dela, eta matrikulazioa maiatzean
zabalduko dutela. Eskola egune-
an 11 orduz zabalik izango dute,
baina ume bakoitzak ezingo du 8
ordu baino gehiago han egin.

Bi kuota izango dira: 5 ordu edo gutxiago egiten duten umeendako, 135 euro hilabeteko; eta 5 eta 8 ordu bitartean egiten dutenendako, 180 euro hilabeteko.

Izena ematerakoan, hainbat gauza hartuko dituzte kontuan eskatzaileei lehentasuna emateko: herrikoa izateak garrantzi handia izango du, eta errenta aitortpena begiratu dute. Begiratu dute, baita ere, ea bi gurasoak lanean dabilzan edo ez, hain zuzen ere, zelako premia duten.

Udalak utzi du egoitza, eta arduratu da lanak adjudikatu eta finantzatzeaz

0 eta 2 urte arteko umeendako izango da zerbitzua; herrikoek lehentasuna dute

AP-1en gaineko 'trapu zikinak' salatzeko asmoa

I.B.

Autobideak Kaltetutako Eskoriatzako Elkartek ohar bat banatu du etxeraz azken egunotan. *Ofizioz gezurti* izenpean Bidegiko arduradun Nestor Aranaren esan batzuk batu dituzte. Elkarrean asmoa da herritarrei "halako esanak ezagutzera ematea, oharren eta Interneten bidez".

Ofizioz gezurti (1) da Eskoriatzako 1.600 bat etxe eta baserrian astean jaso duten oharra. Autobideak Kaltetutako Eskoriatzako Elkarrekin egin eta zabaldu du ohar hori. Idatzian Bidegiko arduradun Nestor Aranek Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoari idatzitako gutuna transkribatu dute. Aipatu beharra dago gutunaren tonua oso gogorra dela.

Horrekin lotuta, elkarteko ordezkariak jakinarazi digute "agintarien jarrerarekin oso haserre gaudela". Euren esanetan, "autobidearen proiektuaren hasieran Aldundiak gauza on batzuk egin zituen, baina Bidegik guztia okertu du". Are gehiago, azpimarratu zuten Bidegiren jarrera "oso iluna eta ezkutukoa" dela: "promesa asko egiten dituzte, baina gura dutena egiten dute beti".

INTERNETEN BLOGA ZABALDUK DUTE

Gauza asko dituzte kontatzeko. "Bi urte daramatzagu bueltara eta aspertu gara isilik egoteaz. Esan dituzten gezurrak eta egin dituzten txapuzak ezagutzera eman behar dizkiegu herritarrei. Guk ez daukagu komunikabiderik. Hortaz, etxeraz banatuko ditugu oharrak eta Interneten bloga zabalduko dugu".



Instrumentuen erakusketa, prest

Lorentxo Altube arrasatearrak Udalarari utzitako musika instrumentuen erakusketa, dagoeneko, prest dago. Berez, otsailaren 2an zabalduko dute jendaurrera, baina egin dute bisita gidaturen bat. Gaur, egubakoitza, zailtasunak dituzten Atsedeen elkarteko hainbat lagun joatekoak ziren erakusketa ikustera, Lorentxo Altuberen azalpen eta guzti. /I.B.

- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2006ko urtarrilaren 27a / 179. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Auzoak indartzea eta bideak konpontzea izango dira Udalaren aurtengo erronkak

UBANE MADERA

1.812.571,16 euroko aurrekontua du Udalak 2006rako. Sarrerak, berriz, 1.764.000 euro dira. Bien arteko aldea zela egokitu erabakitzeak ziren oraingo asteko osoko batzarrean. Eta horren arabera zehaztuko dute behin betiko aurrekontua.

Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarra bukatu barik zegoen, eta ondorioz, ezin dugu eman udalbatzarren onartu duen behin betiko aurrekontuaren berri.

AUZOAK INDARTZEA

Dena dela, alkateak aurreratu digu osoko bilkurarako prestatutako zirriborroa, eta oro har, argitu dizkigu zeintzuk diren Udalak 2006rako dituen helburu nagusiak: "Egin nahi dugu ahalegina auzoak indartzen, 2005ean Arexolan egin dugun moduan. Horrela, Arriola, Errotabarri eta Salgo auzoetarako pentsatutako egitasmoek eta herriko bideen konponketek hartuko dute aurrekontuaren zatirik handiena".

AUZOETARAKO PROIEKTUAK

Hain zuzen ere, honako inbertsio hauek nabarmendu dizkigu



Auzoak indartzeko ahaleginean, besteak beste, Arriola, Errotabarri eta Salgo berritu nahi ditu Udalak, eta herriko bideak konpondu.

Mertxe Mondragonek: Arriola auzoko azpiegiturak (ura, argindarra...) eta Errotabarri eta Salgo auzoetako azpiegiturak berritzea. Hori bai, esan beharra dago bi proiektu horiek Udalarendako lehentasunak izan arren,

Diputazioaren Plan Foralaren mende izango direla. Izan ere, Udalak espero du handik eskuratzea lan horiek egiteko dirulaguntza garrantzitsua. Maiatzean jakingo du Udalak laguntza horiek lortuko dituen edo ez.

BIDEEN KONPONKETA

Auzoen berritze lanez gainera, herriko bideen konponketa da Udalak 2006rako duen beste lehentasunetako bat. Urribarri eta Gureia eta Arexola eta Urribarri auzoen arteko bideen konponke-

ta, batez ere. Mendiko bideak eta herriko beste zenbait bide txiki ere kontuan hartuko ditu Udalak.

BESTELAKOAK

Eta bestelako aurreikuspenen artean, honakoak nabarmendu dizkigu Mertxe Mondragonek: kantsantura igotzeko bidea, udaletxe-ko teilatua eta kiroldegia konpondu nahi dituzte. Kiroldegia kasuan, esaterako, pareta batean dauden filtrazioak konpondu eta kiroldegia margotu nahi du Udalak aurtun.

Era berean, alkateak jakinarazi digu Europako agindu baten ondorioz, herriko uren analisia egin beharko dutela 2006an; edateko urena, hain justu ere.

ZIFRAK EGOKITU BEHAR

Baina lehen esandako moduan, horiek guztiak aurreikuspenak dira. Izan ere, oraingoz, Udalak egin duen aurrekontuan 48.571,16 euroko desfasea ateratzen zaio. Hala, aurrekontua onartzeko, desfase hori gainditu beharko du eta sarrerak eta gastuak parekatu. Hori egiteko, 2006rako aurreikusitako zenbait proiektu bertan behera utzi beharko ditu Udalak. Hain zuzen ere, bestelakoan artean, horixe erabaki behar zuten eguazteneko batzarrean.

AHTren gaineko aktak bertan behera utzi dituzte

U.M.

Oraingo asteko martitzenean izan dira Aramaion Sustapen Ministerioko langileak. Zundaketak egiteko desjabetze aktak sinatu behar zituzten jabeekin. Inork ez du sinatu.

Ez lurjabeek ezta Udalak ere. Inork ez ditu sinatu AHTrako zundaketak egiteko desjabetze aktak. Batez ere, informazio falta igarri dutelako hartu dute erabaki hori. Eta horren ondorioz, bertan behera utzi zuten martitzeneko ekitaldia.

Alkateak esan digunez, honako baldintzekin egin zuten hori: Aramaion zeudela aprobetxatuta, lurak desjabetu behar dieten jabeek banan-banan informazioa ematea eskatu zieten ministeriokoek. Bestalde, eta ikusita ministeriokoek udaletxean dagoena baino informazio gehiago zutela, eskatu zieten txosten horren kopia bat jabeek ematea eta beste bat udaletxean uztea, nahi duenak ikusi dezan. Eta, hain zuzen, orain denbora utzi dute informazio berria ikusteko eta aste batzuk barru joango dira atzera Aramaioa.

U.M.

Excavaciones Arrasate enpresa arduratuko da Untzilla eta Zabola auzoen arteko errepidea konpontzeaz. Oraingo astean ziren kontratua sinatze-koak Udalarekin.

Hala, kontratua sinatu eta egin beharreko burokrasia kontuak bukatu ostean, 20 eguneko epea izango dute Excavaciones Arrasate enpresakoek Untzilla eta Zabola arteko errepidea konpontzeko. Horrenbestez, Aste

Santurako eginda izango dituzte lan horiek.

BIDEA PETATXATU

Hain zuzen ere, Zabola eta Untzilla arteko bidea petatxatu egin beharko dute, zulo dezente dituzte. Horrez gainera, harri-lubeta bat ere egin beharko dute, gune batean lurra jausita dago-eta.

Lanok egiteko 84.432,92 euroko aurrekontua izango dute. Iazko aurrekontuko partida bat da. Esan beharra dago, baita ere, aurrekontu horren zati bat ordainduko duela Arabako Diputazioak.

Laster hasiko dira Untzilla eta Zabola artean lanean

LABUR

KZgunearen otsailerako hitzorduak

KZguneko arduradunak iragarri digu otsailaren 6an eta 20an izango dela Aramaioko gelan, 16:00etatik 20:00etara. Halaber, esan digu otsailaren 6an, 16:00etatik 18:00etara bitartean, *Etzetik eros ezazu* izeneko mintegia egingo duela. Interesa duen edozeinek parte har dezake, mintegian parte-hartzea zein ordenagailuak eta Internet erabiltzea doakoa da-eta KZgunean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 04
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deltu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan, marrazki bizidunen *Doraemon y los gladiadores* filma emango dute. 17:00etan hasiko da saioa. *Doraemon* sailaren laugarren filma da hori. Erroboten munduan bakea berreskuratzen ahaleginduko dira *Doraemon* eta haren lagunak film horretan. 81 minutu ditu.

BARIKUKO ZINEMA

Gaur, barikua, zinema emanaldia izango dela iragarri digute. *La historia del camello que llora* filma aukeratu dute gaurko saiorako. 90 minutuko filma da, 2003koa. Besteak beste, honako aktoreek lan egiten dute: Janchiv Ayurzana, Chimed Ohin, Amgaabazar Gonson eta Zeveljamz Nyamek. Dramaren eta dokumentalaren artean dagoen lana da, izenburuak dioen moduan, gamelu baten gainekoa. 22:00etarako ipini dute hitzordua.

BAINUETXEAK

Otsailetik abuztura bitartean bainuexetara joan nahi dutenek astelehena, hilak 31, baino lehen egin beharko dituzte eskaerak.

Gaur zortzi, Santa Ageda ospatuko dute

U.M.
Santa Ageda bezperaren bezpera egin behar dute aurten eskolakoek; izan ere, zapatuan beharrean, barikuan aterako dira koplak abestera. 09:00ak eta 09:30ak bitartean aterako dira eskolatik; taldeka banatu eta auzo guztietara joango dira.

Zapatua jaieguna dute eskolakoek. Horregatik aterako dira barikuan, gaur zortzi, kantuan. Goizean eskolatik atera eta goiz osoa emango dute auzoz auzo kantuan eta eskean.

TXIKIENAK HERRIAN

Hala, txikiak Ibarra inguruan barreiatuko dira: 2 urtekoak, eskolan; 3 eta 4 urtekoak, kalean eta 5 urtekoak, Ibaratik gertu dauden auzoetan (Eguzkie-rippa, Matxain...).

HANDIAK, URRUTIRAGO

Gainerakoak, berriz, urrunago auzoekin arduratuko dira. Esaterako, lehenengo mailako

neska-mutikoak Alzagatik kalera zorian ibiliko dira; bigarren mailakoak, berriz, Gureian zehar; hirugarrenkoak Etxaguen eta Gantzaga aldera igoko dira; laugarrenkoak Arexola eta Arriola ingurura; bosgarrenkoak Azkoaga, Barajuen eta inguru haiek bisitatuko dituzte eta bukatzeko, seigarren mailakoak arduratuko dira Untzilla, Suña, Cuatrovientos eta inguru hartako baserri eta bizilagunei Santa Ageda zaindariaren gaineko koplak eramateaz.

BATUTAKO APROBETXATZEN

Bestalde, tradizioak agintzen duen moduan, kantuan ibiltzeaz gainera, eskean ere ibiliko dira neska-mutikoak baserri berriz. Eskolako zuzendari Blanka Mendiak jakinarazi digunez, batutakoari bi erabilera emango dizkiote: hamarretakoak egiteko eta eskolako jangelari saltzeko. Eta eskolako jangelatik eskuratzen duten diru hori eskolako txangoak-eta egiteko aprobetxatzen dute.

Inausketa eta txertaketa ikastaroa

U.M.
Mendikoirekin elkarlanean, inausketa eta txertaketa ikastaroa antolatzeko aukera du Udalak. Eta hala egingo du, baldin eta herritarrek interesa badute. Gutxienez 15 laguneko taldea osatu beharra dago ikastaroak aurrera egiteko.

Otsailaren 18an eta 25ean eta martxoaren 4an egin nahi du ikastaroa Udalak. 15 ordukoa izango da. Eta asmoa da esandako egun bakoitzean (zapatuak) bost orduko eskolak egitea. Mendikoiko Aitor Etxeandia irakasleak emango ditu eskolak. Hala jakinarazi digu Mertxe Mondragon alkateak.

OTSAILAREN 3A BAINO LEHEN

Lehen esandako moduan, gutxienez 15 lagunek eman behar dute izena inausketa eta txertaketa ikastaroak aurrera egiteko. Eta, hain zuzen ere, otsailaren 3ra arte dago izenak emateko. Udaletxera jo beharra dago horretarako. Bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu.

AURRERAGO, GEHIAGO

Hala, ikastaro horrek aurrera egiten badu, antzerako gehiago antolatzeko aukera dagoela esan digu alkateak. Esaterako, eta betiere herritarren interesak kontuan hartuta, izurriteen gaineko ikastaro bat antolatu ahal izango litza-teke hurrengo Aramaion.

Asmoa da ikastaroa otsailaren amaieran eta martxoaren hasieran egitea, zapatuetan

Ikastaro horrek aurrera egiten badu, antzerako gehiago antolatzeko aukera du Udalak

BOTEPRONTOAN/ Eduardo Rodriguez · Arabako Basogintza Elkartekoa

“Aramaioko minifundio gunea da; jabe pribatuak dira eta landatzen dituzte errentagarriak diren espezieak”

Joan den astean izan zen aurreneko aldiz Aramaion Eduardo Rodriguez. Arabako Basogintza Elkarteko kide da Alonsotegiko gazte hori; basoko ingeniari teknikoa, izatez. Aramaio baso-jabeei zerbitzua emateko izango da udaletxean datozen hilabeteotan:

Zelakoa da Aramaioren gainean izan duzun aurreneko irudia?


Oso pozik nago; kontsulta asko izan nituen eta basogintza elkarterako sei bazkide berri egin nituen. Gainera, informazio eske ere etorri zen bat edo bat... Zerbait dirulaguntza egiteko eskararak hartu nituen eta aholkulari lanak ere egin nituen. Beraz, oso ondo eta oso pozik. Lan eta lan ibili nintzen, baina oso ondo. Gainera, jendea oso jatorra da.

Hortaz, zerbitzu horren beharra bazegoela dirudi, ezta?

Bai. Kontua da Aramaio baso asko dituela. Eta jendearandako Amurriora joatea ez da horren erraza. Orain arte, akaso, dirulaguntzak euren kabuz eskatzen ibili dira; edo euren ez egitearren, akaso eskatu ere ez dituzte egiten...

Oraingoan, hilean behin ikusiko zaitugu Aramaion...

Bai. Hilean behin joango naiz dirulaguntzak eskatzeko sasoia



denean. Martxoaren lehen itxen da epea. Martxotik aurrera, berriz, bi hilean behin joango naiz Aramaioa. Baina, jakina, eskaera handia dagoela ikusten badugu, handitu egin beharko dugu maiztasuna. Otsailean, berriz, hilaren 23an joango naiz. **Izan ere, Aramaioa joateaz gainera, beste leku askotan ere ibiltzen zara, ezta?** Bai. Lehenengo eta behin esan

beharra dago ni amatasun baja bat betetzen nabilela. Berez, ni orain egiten nabilen lan hau Iruñe Larreategi orozkoarrak egiten du. Gainera, neu Bizkaiko elkarrean ere banago. Izan ere, esan genezake Arabako elkarrean Bizkaikoaren mendeko-edo dela. Arabakoak ez du-eta bere kabuz ibiltzeko adina indar. Ni Bizkaiko elkarrean nago eta astean bi egun ematen ditut Arabakoan (egue-

netan eta barikutan). Esaterako, eguenetan bulego-lanak egiten ditut. Barikutan, berriz, Amurrioren nago, arreta zerbitzua egiten. Bestela, astelehen eta martitzenetan Igorren izaten naiz eta eguaztenetan, Erletxen.

Zelakoa da Aramaio baso?

Ez dut larregi ezagutzen; dakidana da Aramaio minifundio gunea dela. Jabe pribatuak dira eta bakoitzak landatzen ditu errentagarriak diren espezieak: Douglas izeia, Radiata pinua, laritzak, Larizio pinua... Irabaziak eskuratzeko. **Zela ikusten duzu mendien etorkizuna?**

Egia da geroago eta gehiago baztertzan dugula mendia, batez ere, gazteak hirira joaten direlako. Eta uste dut Diputazioek pentsatuta izango dutela zerbait. Dena dela, gure elkartek badu zerbitzu bat, Basoekin izenekoa, baso batekin zer egin ez dakienari laguntzeko.

Besterik esan nahi baduzu...

Aramaiokoak ondo erakutsita daude, ohituta daudelako dena euren kabuz egiten. Dena dela, jakinarazi nahiko nieke egurraren zertifikazioa ere ematen dugula, egurraren label moduko hori: egurra modu jasangarrian (ekologikoan) landatzearen ematen dugula label hori.

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a / 35. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otxalora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

GARRAIOA/ Autobusa Gatzagan

Astelehenean hasiko da autobus zerbitzua, herritarren eskaerak kontuan hartu barik

XABIER URTZELAI

Astelehenean bertan hasiko da Gatzagan autobus zerbitzua. Baina, gatzagarrek behin eta berriro eskatu badute ere, zerbitzu hori ez du Pesa konpainiak eskainiko. Hala, gazteek ikastetxera joateko erabiltzen duten autobusak eta taxi-busak eskainiko dute zerbitzu hori.

Gatzagarrek lehenago izan zuten zerbitzuarekin alderatuta, berrietasuna da oraingoan taxi-busak ordutegi zehatza izango duela. Hala ere, Diputazioak ez ditu aintzat hartu azkeneko hilabeteotan herritarrek egin dituzten hainbat eskaera. Hasteko, zerbitzua egonkorra izan zedin herritarrek gura zuten Pesa konpainiako autobusak herritik igarotzea, bai Eskoriatzako noranzkoan eta baita Gasteizko noranzkoan ere. Hori beharrez, gazteek ikastetxera joateko erabiltzen duten autobusak eta taxi-busak eskainiko dute zerbitzua.

ASTEBURUETAN AUTOBUSIK EZ

Diputazioak bidali duen ordutegiaren arabera, Gatzagako bizi-lagunek asteburuetan ez dute garraio bide publikorik izango,



Astelehenetik aurrera autobus zerbitzua izango da Eskoriatza eta Gatzaga artean.

astelehenetik egubakoitzerako ordutegia baino ez dator-eta. Horrekin batera, Gasteizera joan gura dutenek Eskoriatzaraino jaitsi beharko dute. Horren harira, gatzagarren beste eskaera bat

zen Gasteizera joateko herritik Arlabango gainera autobusa izatea, bertan Pesakoa hartu ahal izateko. Baina, momentuz, behintzat, Diputazioak ez du aukera hori aintzat hartu.

Autobusen ordutegia

ESKORIATZA - GATZAGA

Irteera orduak, astelehenetik egubakoitza:

08:00Ikastolako autobusa.
11:30Taxi-busa.
16:40Ikastolako autobusa.
19:00Taxi-busa.

GATZAGA - ESKORIATZA

Irteera orduak, astelehenetik egubakoitza:

08:05Ikastolako autobusa.
08:30Ikastolako autobusa.
11:40Taxi-busa.
16:50Ikastolako autobusa.
19:10Taxi-busa.

Autobus zerbitzua erabiltzeko, erabiltzaileek bidaiari bakoitzeko euro bat ordaindu beharko dute. Baina, 10 bidaiari bakoitzeko euro %20 deskontuak izango dituzte, eta erretiratuek %50eko deskontua. Momentuz, Gatzagako udaletxean egongo dira tiketak salgai.

KOMISIOKOEN BATZARRA

Lurralde antolamendu eta sustapenerako diputatu Koldo Azkoitiak hasieratik baztertu zuen gai horren gainean herritarrekin berba egiteko aukera.

Hala, Udaleko ordezkariak izan dira diputatuarekin berba egin dutenak. Horren harira, Gatzagan garraio bidearen arazoa lantzeko sortu zen komisioak batzarra egin behar zuen atzo.

Lehenengo egin gura zuten zen informazioa batu, inork ez dielako ezer esan. Eta, orduan egin autobus zerbitzu berriaren balorazioa. Balorazio ofiziala egin aurretik badakigu komisio horretakoak ez daudela batere pozik, euren esanetan arazoa konpondu beharrez adabakia (partxea) jarri dutelako.

Ertzainen bisitaren zain daude kutxazaina martxan jartzeko

X.U.

Hilabete mordoan zain egon eta gero, azkenean erabilgarri dago Gatzagako kutxazaina. Hala ere, eta nahiz eta kontraesana izan, oraindik ezin daiteke dirurik atera. Ertzainak joan behar dira horretarako.

Gatzagako Udalekoak ertzainen zain daude, kutxazainak dirua eman ahal izateko ertzainen begiratua eta oniritzia falta delako. Hori, baina, egun batetik beste-

ra egin dezaketen lana da. Bitartean, kutxazaina kontu korrontearen gaineko kontsultak egiteko erabil daiteke, eta baita politikoko telefonoa kargatzeko ere. Hala, badirudi egun gutxiren bueltan egongo dela kutxazaina %100ean erabilgarri.

24 LAGUN SAGARDOTEGIRA

Bihar eguerdian joango dira sagardotegira Labidean izena eman duten 24 gatzagarrik. Irteera antolatzen ibili direnak pozik geratu dira ekimenak izan duen

erantzunarekin. Aulia sagardotegira joango dira bazkaltzera.

PILOTAKO EMAITZAK

Joan den domekan ibili ziren Arrasateko, Otxandioko eta Gatzagako pilotariak lehian. Gatzagarrei dagokienez, Xabierrek eta Anderrek 8-22 egin zuten Arrasateko Muruaren eta Herizen kontra; eta, Asierrek eta Aratzek 4-22 egin zuten Arrasatekoen kontra. Anaitzek eta Novoak mendean hartu zuten Otxandioko bikotea (22-18). Eta, Ikerrek ere 18-4 irabazi zuen.



Ertzainek oniritzia ematen dutenean atera ahal izango da dirua Gatzagan.



Laser bidezko depilazioa:

bizkorra, progresiboa eta segurua.
Kendu nahi ditugun ileak
deuseztatzeko eraginkorra,
emakume eta gizonentzako.



EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTROA

ESKORIATZA
943 71 51 54

igo autobusera



Astelehenetik
egubakoitzera

Goizeko 10etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com



2006-2007 ikasturtea

izena ematea: **otsailaren 6tik 17ra**

Ordutegia: 09:00etik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



TALDE EGOKITUAK

- 0tik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- Goizeko 7:30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

LOGELA

**Txiki txikitatik
jolasten heziz**

**BELORRIETA 8an GAUDE.
943 77 03 77**